

Julene Azpeitia lehiaketa



2011. urtea

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2011. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1423-2011

2011ko azaroa

HITZAURREA.....	7
<i>Andoni Iruarizaga Amantegi</i> <i>Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea</i>	
IPUINAK.....	11
IZENIK GABEKO PRINTZESA	11
<i>Ane Contreras Perez</i>	
ILARGIRA BIZIKLETAN	17
<i>Jokin Aizpurua Larrinaga</i>	
ANIMALIEN ZOROITISA	23
<i>Hodei Lasa</i>	
AMAMAREN IDUNEKOA	29
<i>Paule Alzaga Garitaonandia</i>	
HIRU MILESIMAGATIK	41
<i>Elene Zuazua Uribelarrea</i>	
LOTO-LOREA.....	49
<i>Nahia Bilbao Gandarias</i>	
DENAK HIL OMEN ZIREN	59
<i>Iris Azkarate Elejabarrieta</i>	
ZOROARENA.....	71
<i>Elena Arbonies Jauregi</i>	
HIRU ITZAL	81
<i>Itzal Martinez de Luko Aranguena</i>	
IRLA	93
<i>Aitor Albistur Pulido</i>	

OLERKIAK..... 101

ZU ZARENA..... 101
Arrate Negral Ugena

FIRIN-FARAN..... 105
Nerea Moreno

KALEAN ZEHAR 109
Nerea Moreno

EZ NAIZ GAI 113
Igor Uruburu Martinez

BERTSO PAPERAK..... 117

URKIOLA 117
Maidier Urien

ARDOA 121
Imanol Bilbao

NERABEZAROA 125
Igor Uruburu Martinez

EDANAK EDAN..... 129
Aitor Albistur Pulido

Julene Azpeitia lehiaketa neguan abiatzen dugu, udaberriaren loratu egiten da eta udako solstizioa orduko banatzen ditugu sariak. Udagoienean uzta batu, maketatzeko prestatu eta neguko solstizio orduko betikotu egiten da paperera eta euskarri digitalera eroanda. Labetik atera berri, liburuaren usain sarkorrak hainbat oroitzapen gogoraraz ditzake: umetan liburutegira komikiak irakurtzen joaten ginenekoa, ikasturte hasieran eskolako liburu berriak erosten genuenekoa...

Euskara eta Kultura batzordeko presidente izendatu berria naizen aldetik, nire lehen agerraldia da 25 urteko tradizioa duen Julene Azpeitia argitalpenetan. Nolanahi ere, jakin badakit, Julene Azpeitia lehiaketaren lan saritu gehienak gure herriko eta inguruetako ume eta gazteek idatzitakoak direla. Lan ikaragarria egiten da, eta pertsona asko dago inplikaturatuta: ikastetxeetako irakasleak, epaimahaikoak, udaleko langileak,... Nire eskerrona guztiontzat eta, bide batez, animatu egiten zaituztet aurrerantzean ere horrela segi dezazuen.

Besterik ez, hartu egizue liburua eta gozatu abenturekin, horixe da-eta idazle gazteentzako saririk onena, alegia, jakitea beraiek idatzitakoa irakurri egin dugula.

Andoni Iruarizaga Amantegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 1 1

Ipuinak



Ane Contreras Perez

Irabazlea 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea



Izenik gabeko printzesa

Bazen behin, erdi aroko herrixka txiki batean, izenik gabeko neskatxa polit bat. Egun batean, hamaika urte betetzean, neskak bere etxetik beste herri batera joatea pentsatu zuen, bere herrian denak burlaka ibiltzen baitzitzaizkion izenik ez zuelako.

Beste herri batera ailegatu eta kalean inor ez zegoela ikusi zuen. Amona bat ikusi zuen, etxe baten atzealdean ezkutatuta. Neskak esan zion:

- Zergatik ez dago inor herri honetan? Nik hemen jendea biziko zela uste nuen.

- Bai, baina herri honetan dragoi bat bizi da. Herriko kanpoaldean dorre bat dago: hori da bere etxea. Berari ez zaizkio printzesak gustatzen, eta bat ikustean, dorreko azken pisuan giltzapetzen du. Aspaldian ez du printzesarik ikusi, eta orain herriko emakumeak harrapatzen ditu, inork ez daki zer gertatzen zaien han barruan neska horiei.

Izenik gabeko neska kanpoan zegoen oraindik, baina bidea jarraitzera zihoala, dragoiak harrapatu egin zuen. Gero, bere dorrera eraman zuen.

Bost urte pasatu ziren, eta herriko jendeak ez zuen neska aurkitzen. Egun batean, printze bat agertu zen, izenik gabekoa hau ere. Etxe guztietan begira zihoan ea neskaren bat aurkitzen zuen. Hurrengo astean ezkondu behar zuen, eta oraindik ez zuen neska egokia aurkitu. Kalean txartel bat aurkitu zuen: "Izenik gabeko neska bilatzen ari gara. Aurkitzen lagundu nahi duena etor dadila Kale Nagusiaren hirugarren etxera."

Printzea etxerik etxe joan zen galdetzen ea non bizi zen neska horren familia. Azkenean heldu zen, eta neskaren gurasoei galdetu zien non egon

ahal zen neska. Ez zekitela esan zioten, duela bost urte etxetik joan zela, eta ez zela bueltatu.

Printzeak neskatzaren bila joango zela esan zion, bizirik ekarriko zuela eta gero baimena eskatuko ziela berarekin ezkontzeko. Neskaren argazki bat eman zioten, printzeak ikusten bazuen ezagutu zezan.

Dragoiaren herrira heldu zenean, neskatzak amonari galdetu zion ea ezagutzen zuen argazkiko neska. Amonak baietz esan zion, eta gero dragoiarena ere kontatu zion. Printzea dorrerantz abiatu zen, eta heldutakoan dragoia ikusi zuen.

- Aizu! Non dago harrapatu zenuen neska?

- Zer neska? Nik neska asko harrapatu ditut.

Printzeak argazkia erakutsi zion, eta dragoiak esan zion:

- Neska berreskuratu nahi baduzu, hiru proba pasatu beharko dituzu.

- Ongi da. Neskaren gurasoei neska sano eta salbu ekarriko niela esan nien, eta horrela izango da.

- Ongi da. Kar, kar, kar! Guraina barre egingo dut, seguru...


- Zeintzuk dira zure hiru proba, dragoi?

- Lehenengoa, labirinto hau pasatzea; bigarrena, erreka krokodiloa eta nire bi zaindarien kontra irabaztea; eta hirugarrena eta txarrena... nire kontra borroka irabaztea! Eta gero, noski, dorrean neskaren logela aurkitu behar izango duzu. Zorte on, printze, beharko duzu eta.

Dragoia zerutik hegan desagertu bezain laster, printzea labirintora sartu zen. Barruan zegoela berrogei minutu behar izan zituen irteera aurkitzeko, baina ateratzea lortu zuen.

Orain bigarren proba egin behar zuen. Erreka pasatzea nahiko erraza gertatu zitzaion: krokodiloari tranpa bat jarri zion, baina zaindarien kontra irabazteko denbora gehiago behar izan zuen.

Azken proba falta zitzaion, eta dragoiaren aurka borrokatzeko prest zegoenean, neskaren herriko jendea heldu zen, printzeari laguntzeko asmoz.



- Zergatik hainbeste jende? –esan zien dragoiak–, uste nuen beldur zenidatela.

- Bai, baina ez dago ondo egiten duzuna, eta printzea laguntzera gatoz. Hil egingo zaitugu, zuk beste neskekin egin zenuen bezala.

Dragoia barrezka hasi zen.

- Nik ez ditut printzesa haiek hil. Printzesok ez zuten izenik, eta jendeak haietaz barre egiten zuen. Orduan nik, haiek bezala, izenik gabekoa izanik, neskak dorrera eramatea pentsatu nuen. Dorre atzean herrixka txiki bat dago, “izen gabeko herrixka” du izena. Han izen gabeko jendea bizi da. Krokodiloa, zaindaria, neskak...

- Eta, zergatik zegoen negar eta negar neska hori?

- Bera oso triste zegoen zuek berataz barre egiten zenutelako. Horregatik logelarik hoberena prestatu nion dorreko azken solairuan.

- Ba, ni, izen gabeko printzea naiz, eta neskarekin ezkontzeko asmoz etorri naiz.

- Eramaten utziko dizut, baina, hiru gauza egin beharko dituzue horren truke: Bat, berataz eta izen gabeko beste pertsona edo animaliez ezin izango duzue barre egin.

- Ongi da.

- Bi, zaindaria, krokodiloa, beste neskak eta ni zuen herrira bizitzera joango gara, eta ondo tratatuko gaituzue, bromarik gabe, beldurrik gabe, besteak bezala. Eta hiru, nire dorrea eta herria zuen herriarekin elkartu, eta herri erraldoi bat egingo dugu denon artean. Dorreak nire etxea izaten jarraituko du. Ah!, Eta lau, zuen ezkontzan ni izango naiz ezkonlaguna, beti egin nahi izan dut.

- Ongi da. Orain, goazen herrira, ezkontza prestatu behar dugu eta.

Horrela, herriko jendea ondo portatu zen izenik gabeko jendearekin, eta printzesa poz-pozik bizi izan zen bere senarrarekin. Alaba bat izan zuten. Eta, noski, ez zioten izenik jarri, baina asko maite izan zuten.

Ipuinak



*Jokin Aizpurua
Larrinaga*

Akzesita 11-12 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Ilargira bizikletan

Astronauta! Astronauta! deitzen diote Josuri ilargira joan nahi duelako, baina ez koheteen bizikletan baizik.

Josu bederatzi urteko mutikoa da eta Atxondoko baserri batean bizi da bere aita-amekin eta aitona Joxe Mielekin. Aitona, gaztetan, txirrindulari bikaina izan zen eta beti dabil orduko kontuekin:

- Kontatu dizut inoiz 1962ko Frantziako karrera?
- Bai aitona, 20 edo 30 aldiz.
- Eta kontatu dizut 1967an Pirinioetan irabazi nuen etapa?
- Baaaaai, hori 50 edo 60 aldiz.

Josuri ere asko gustatzen zaio bizikletan ibiltzea baina ez karreretan parte hartzeko. Josuk gauza bakarra du buruan: bizikletarekin saltoak egitea. Gainera azkenengo urtebetetzean aitona Joxe Mielek bizikleta berria oparitu zion eta primeran dabil.

Bizikleta gorria da, freno hidraulikoak ditu, zortzi pinoi, hiru plato eta FOX amortiguadoreak, munduko onenak. Kaskoa ere berezia dauka. Aitonak astero emandako pagarekin interneten erosi zuen espazioko kasko dotorea. Josuk egunero entrenatzen du.

- Nora zoaz Josu? Bazatoz gurekin?-galdetzen diote lagunek.
- Ez, saltoak egitera noa -dio berak.

Azkenaldian bizikleta hartu eta mendirik mendi dabil.

Joan den astean Mugarratik Untzillatxera eta hortik Astxikira egin zuen. Indarra hartzeko Josuri ideia bitxia bururatu zaio: behi bat duenez etxean eta horren puzkerrek gasa dutenez, ontzi batean sartu du gasa, bizikletaren zelari lotu dio eta salto egiteko unean su eman eta... ZZIIIIUUU!!!, badoa airean.



Gaur zerua garbi-garbi dago eta erdi-erdian ilargia bete-betea. Goizean Josuk esan du gelan:

- Ilargirainoko saltoa gaur gauean egingo dut.
- Josu, entzun, gezurak esatea oso motza da -erantzun dio berehala andereño Aitziberrek.
- Baietz! egin egingo dut, eta balkoitik begiratzen baduzue ikusiko nauzue.

Esan eta egin. Josu Alluitzera igo, pedalak ematen hasi eta Anbotoko puntara heldu denean behiaren puzker poteari su eman eta... ZZIIIIUUU!!!, ilargirainoko saltoa egin du. Bi buelta eman ditu ilargian, gero Udalatxera egin du salto eta handik Elorriora jaitsi da.

Nik ikusi dut, eta zuk?

Ipuinak



Hodei Lasa

Akzesita 11-12 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Animalien zoroitisa


Bazen behin artzain bat hamaika ardi zituen, guztiak zuri-zuriak. Artzaina argala zen, eta oso beldurtia. Hortik gutxira hamar ardi jan zizkion otso batek, eta bost egun itxaron behar izan zuen hesi bat jartzeko, otsoak ardi gehiago jan ez zekizkion. Bizirik geratu zen ardia abenturazalea zen, Momotxo zuen izena eta apur bat zoratuta zegoen baina abantaila bat zuen: ez zuen *beee* esanez belarra eskatzen beste ardi guztiak bezala. Sukaldera joaten zen gose zenean, egurrezko plater erraldoi batean 5 kg belar jatera.

Egun batean zoroitisak jo zuen eta munduko sumendirik handienera, garaienera eta arriskutsuenera joatea bururatu zitzaion: Saharako basamorturantz abiatu zen.

Lehenengo hiru kilometroetan egarri zegoen, handik ordu batera konturatu zen ardia zela eta esnea zeukala tragotxo bat edateko. Denboraz adarrak hazi zitzaizkion, zoroitisa zuelako. Bidean animalia bat aurkitu zuen: kobra bat zen eta bera ere munduko sumendirik handienera zihoan (sugea ere zoroitisak jota zegoen, jakina). Lagunak egin ziren liskarrean:

- Zoroitisak jota zaude! -esan zuen ardiak.
- Zu zara zoroitisa duena! -erantzun zion kobrak.

Eta bata besteari kasu eginez ohartu ziren biek zutela zoroitisa.



Azkenean biak oihanera heldu ziren. Lianetan zintzilikatuz kobrak George oihanekoa zela pentsatzen zuen, eta Momotxok Tarzan zela. Biak batera tigre baten kontra jo zuten; ihesean loro bat aurkitu zuten, hau ere zoroitisak jota, baina loroa ez zihoan inora. Dena den, beste biek behartu egin zuten eurekin joatera.

- Loro txoro, etorri gurekin munduko sumendirik altuenera, mesedez!
- Ongi da!

Hirurak sumendira abiatu ziren. Bidean, Momotxori zoroitisa handitu zitzaion eta sumendia ikusi zuenean, korrika batean, tontorrera igo eta labara erori zen. Barruan labako gizona bizi zen, eta ardia jausterakoan, labako gizonak, zulo bat egin zuen ardia erre ez zedin eta, gero, ardia jateko, baina momotxo eskapatu egin zen, eta labak artilea erre zion, eta zoroitisa desagertu egin zitzaion. Momotxo labako gizona hiltzen saiatu zen bere adarrekin, baina ez zuen lortu. Azkenean Momotxok hartu zuen minik handiena. Orduan bere esnea erabili zuen labako gizona hiltzeko: esnea oso hotza zegoen eta labako gizonak ez zuen hotza jasaten.

Beste bi animaliek Momotxoren esnea edan zuten eta zoroitisa kendu zitzaion. Eta, gertatua ospatzeko, bertan gelditu ziren bizitzen.

Handik urte batzuetara aspertu egin ziren elkarrekin bizitzen eta bakoitza lehen bizi zen tokira itzuli zen. Artzainak ia ez zuen Momotxo ezagutu: orain hamar urte zituen, eta gainera, beltza zen. Izan ere, ardi batzuk, zoroitisaz gaixotu ostean, sumendi altuenetara joaten dira eta artilea erre egiten zaie.

Ipuinak



*Paule Alzaga
Garitaonandia*

Irabazlea 13-14 urteko sailean

San Antonio – Santa Rita Ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Amamaren idunekoa

2002ko martxoaren 16a zen eta ospitalean nengoen. Nire gurasoek eta anai-arrebek amamarekin bakarrik utzi ninduten une batez.

- Amama, ez nazazu utzi mesedez.
- Laztana, ez ezazu negarrik egin, denoi iristen zaigu eta gure ordua.
- Badakit, baina ziur nago gaurkoa ez dela zurea. Amama Mariak irribarre egin zidan esanez:
- Tori -ondoan zuen kaxoi batetik iduneko bat atera zuen-, hau zuretzat da.
- Oso polita da, baina zer iduneko da hau? Ez dizut inoiz ikusi.
- Zurea balitz bezala zaintzea nahi dut, niretzat oso berezia da eta.

Bat-batean, bere eskua dardarka hasi zen, eta alboan nuen makina txistuka. Jarraian, izugarrizko buila sortu zen, hainbat mediku sartu ziren, eta logelatik bota ninduten. Minutu batzuk geroago, niri eta anai-arrebei inoiz emandako berririk txarrena eman ziguten, amama hil egin zela.

Denontzat izan zen oso berri txarra, baina guztietatik nik sufritu nuen gehien. Ama eta aita, bigarren egunean bizimodu normala egiten hasi ziren, eta Oihanek eta Asierrek, nire neba txikiak eta ahizpa nagusiak, lehenengo hiru egunetan negar malkoren bat bota ondoren, laugarrenean etxetik saltoka zebiltzan berriz ere. Baina niretzat

desberdina zen, nik ez nuen amama bakarrik galdu, neure lagunik onena galdu nuen. Izugarri maite nuen, eta gertatzen zitzaidan guztia berari kontatzen nion; gainera, esango nuke nirekin beste biloba guztiekin baino hobeto moldatzen zela.

Lehenengo bi hilabeteetan eskolara joaten nintzen, baina beti burumakur: ez nuen inorekin hitz egiten, etxerako lanak ez nituen inoiz egiten, eta egiten nituenean erdizka eta gaizki.

Baina hirugarren hilabetea hobera egin nuen, gutxienez goizero altxatzeko arrazoi bat nuen. Amama hil zenetik, berak emandako idunekoa neraman jarrita. Baina gau batean, idunekoa igurtzen nenbilela konturatu nintzen barnean gizon dotore baten argazkia zegoela. Eta gizon hura ez zen aitite; ez nekien nor zen, ez nuen nire bizitza osoan ikusi. Harriturik nengoen, baina oraindik harrituago geratu nintzen argazkiaren atzean bertso hauek ikustean:

Nere sentimendua nahi det deklaratu:

Ameriketan nago hau ezin ukatu;

Hemen eginagatik ondo gobernatu,

Horkuaz egiten naiz asko akordatu.

Honuntz etorri nintzan utzirikan ama,

anai-arrebak eta familia dana;

egitiagatikan desio nuena,

geroztik triste nago, ai! Nire barrena.

Egia esan, momentu horretan ez nuen ezer ulertzen, beraz lo egitera joatea erabaki nuen, beste erremediorik ez neukan eta.

Hurrengo egunean pentsakor joan nintzen eskolara. Baina nahiz eta denbora guztian pentsatzen ibili, ez nuen misterioa argitzeko haririk aurkitzen.

- Aupa Nerea, zer, hobeto al zaude?

- Bai, poliki-poliki neurria hartu diot egoera berriari.

- Pozten naiz. Baina ez didazu ukatuko zerbait darabilzula bueltaka, ezta?

- Arrazoi duzu Andoni, ondo baino hobeto ezagutzen nauzu! Eta norbaiti kontatu behar diot, bestela lehertu egingo naiz.

Honela Andoniri zehatz-mehatz kontatu nion guztia, baita bertsoak erakutsi ere.

- Benetan? Oso arraroa da guzti hau, baina badakizu zer den oraindik arraroagoa?

- Zer?

- Erakutsi berri dizkidazun bertso horiek nire amamak abesten dituela behin eta berriro.

Hori entzundakoan, derrigortu egin nuen Andoni arratsalde horretan bere amama Felisari bisita bat egitera nirekin batera.

Felisa, herriko erdialdean bizi zen. Lehendik ezagutzen genuen elkar, Andoniri jolastokira ogitartekoa ekartzen zionetik, esango nuke nik. Oso emakume jatorra, alaia eta zuzena zen; pentsatzen zuen guztia esaten zuen.

- Kaixo amama!

- Kaixo Andoni! Eta Nerea! Zer ari zarete zuek hemen ordu honetan?

- Galdera bat egitera etorri gara Felisa -erantzun nion.

- Eseri zaitezte egongelako besaulkietan eta galdetu nahi duzuen. Bion artean, abestia kantatu genion Felisari.

- Ezagutzen al duzu abesti hau, amama?

- Ezagutuko ez dut ba? Xabier Letek abesten du; nire lagun Kontxak egun osoa ematen du kanta hori abesten, eta azkenean nik ere ikasi egin dut.

- Felisa, zer gehiago dakizu abesti honi buruz? Ez dakit, zer urtekoa den edo...

- Ez laztana, horri buruz ez dakit ezer ere. Baina, zerbait jakin nahi baldin baduzu Kontxari galdetu beharko diozu, berak zalantza guztiak argituko dizkizu.

- Ongi da. Baina zuk berarengana eraman al nauzu?

- Jakina. Ordu erdi barru plazako tabernan geratu gara, kartetan egiteko.

Ordu erdira hor geunden hirurok Kontxaren zain. Azkenean, heldu zen, eta hainbeste jende ikusterakoan nahiko harrituta geratu zen.

- Kaixo Felisa! Ondo lagunduta ikusten zaitut! -agurtu zuen Kontxak Felisa, bere umore bitxi horrekin.

- Bai Kontxa, bai. Hauek nire biloba Andoni eta bere laguna Nerea dira.

- Urte askotarako gazteok.

- Bereziki zurekin hitz egitera etorri dira: galderaren bat dute zuretzat.

- Benetan? Ederto, ba! Bota galdera, bota -esan zuen Kontxak gogo handiz.

- Bueno, lehendabizi abesti bat kantatuko dizugu eta gero hitz egingo dugu -esan nuen.

Abestu ondoren, galdetu genion:

- Ezagutzen al duzu?

- Nola ez! Kutunetarikoa dut.

- Eta zer dakizu abestiari buruz?

- Ba, Xabier Letek abesten duela, baina bertsoak 1947an idatzi ziren. Niri senarrak irakatsi zidan. Berarentzat oso balio handiko abestia da; nik esango nuke bere bizitzaren zati bat dela.

- Eta zergatik da berarentzat hain garrantzitsua? -galdetu nuen jakin-minez.

- Amodiozko istorio bat gogorazten diolako.

- Zein, zuok biok bizi zenutena? -Andonik.

- Tamalez ez. Bere bizitzako neskarekin bizi izan zuena -erantzun zuen Kontxak, aurpegi tristea jartzen zuen bitartean.

- Tira Kontxa, ez jarri horrela. Seguru nago zuek ere zeuen momentu bereziak izan dituzuela. Gainera, zure senarrak aspaldiko amodioa ahaztuta izango du jada, bestela ez litzateke zurekin egongo -esan nion animatu nahian.

- Oker zaude. Berak inoiz ez du ahaztu -Kontxa oso urduri jartzen hasi zen eta isilune luze baten ondoren, malkoak masailetatik behera zerizkiola jarraitu zuen; haien artekoa oso indartsua izan zen. Kontatu egingo dizuet, baina ez inori esan mesedez:

«Emakume ahaztezin haren izena Maria zen. Haien istorioa gazteak zirela gertatu zen, 20 urte zituztela edo. Maria, herriko alkatearen alaba zen, familia dirudunekoa eta herrian preziatua. Eta nire senar Santiagoren familiak nekazaritzan jarduten zuen. Txikitatik ezagutzen zuten elkar, auzokoak ziren eta. Oso maiteminduta zeuden, egun guztia elkarrekin igarotzen zuten eta ez ziren inoiz aspertzen. Triste zeudenean “nere sentimendua...” abesten zuten beti.

»Baina egun batean, Santiagok gutun bat jaso zuen, soldadutzara hiru urterako joan behar zuela zioena. Bientzat izan zen oso latza, baina aurrera jarraitzea beste irtenbiderik ez zuten izan. Gainera, zin egin zuten ez zirela inoiz bata besteaz ahaztuko eta egunero idatziko ziotela elkarri.

»Mariak egunero idazten zizkion gutunak, egunean zehar gertatzen zitzaiona kontatuz eta faltan botatzen zuela esanez. Baina Mariak ez zuen Santiagoren eskutitzik jasotzen. Ez zen ez zizkiolako idazten, baizik eta Mariaren ama, Eugenia, eskutitz horiek bere alabaren eskuetan ez jaustiaz arduratzen zelako. Inoiz ez zuen onartu haien arteko erlazioa. Zer esango luke jendeak jakingo balu alkatearen alaba nekazari ziztrin batekin zebilela? Hori zen berari axola zitzaion bakarra, besteek zer esango zuten.

»Santiagok kanpoan bost hilabete zeramatzala heldu zitzaion lehen eskutitza Mariari. Bertan zioen Santiago Martin Gomez bonbardaketa batean hil zela. Guztia Eugeniak asmatua zen, nola ez, harremana mozteko biderik onena iruditu baitzitzaion. Berria jasotzea oso gogorra izan zen Mariarentzat. Hainbat hilabete pasa zituen etxean sartuta, egun batean amak esan zion arte etxean egoteak kalte egiten ziola, gauza



guztiek Santiago ekartzen baitzioten burura, eta hobe izango zela etxetik joatea bizitza berri bati ekiteko. Mariari ideia ona iruditu zitzaion eta, amari kasu eginez, herritik joan zen, bere oroitzapen on guztiak bihotzean zeramatzala».

- Zelako tristea den kontatu diguzuna, baina zuk nola dakizu guzti hau bertan egon ez bazinen? -galdetu nion.

- Oraintxe kontatuko dizuet: Hiru urte pasatakoan Santiago berriro itzuli zen, zeharo harrituta Mariaren gutunik jaso ez zuelako, baina pozik berriz ere ikusiko zuenaren esperantzaz. Baina, bat batean, irribarrea erabat ezabatu zitzaion. Santiagok bere maitearen etxeko txirrina jo zuen, baina ez zion atea berak uzte zuenak ireki, amak baizik. Eta barre eginez esan zion Mariak urte eta erdi zeramatzala etxetik kanpo, eta berak egindako guztia kontatu zion. Santiago Maria topatzen saiatu zen, baina ez zuen inon aurkitu: hain da handia mundua! Sei urte geroago, nirekin ezkondu zen. Nik hasieratik jakin nuen ez zegoela nitaz maiteminduta. Berak dena kontatu zidan, eta onartu zidan oraindik ere gogoan zuela Maria, ez zuela ahaztu.

Une horretan denak isilik geratu ginen, ez genekien zer esan. Nik ordea, gauza bat argi neukan, Santiagorekin hitz egin behar nuela.

- Benetan sentitzen dut Kontxa. Imajinatzen dut zer txarto pasa behar izan duzun -esan zion Felisak.

- Bai nik ere sentitzen dut. Baina joan gaitezke Andoni eta biok zure senarrarekin hitz egitera?

- Nire senarrarekin? Bai, jakina. Dagoeneko helduko zen eguneroko paseotik.

- Ongi da. Baina ez dugu molestatu nahi -esan nuen.

- Ez duzue molestaturik, gainera poztu egingo da umeak ikusterakoan -erantzun zigun Felisa agurtzen zuen bitartean.

- Ongi da, eskerrik asko -esan genion Andonik eta biok.

- Zer demontretarako joan nahi duzu Santiagorengana? -galdetu zidan Andonik.

- Nire amama hil egin da, eta esan zidan azken gauza izan zen lepoko hau berarentzat oso garrantzitsua zela. Beraz, ez naiz geldituko argazkiko gizon hori nor den jakin arte. Eta argazkikoa Santiago dela esango nuke. Ulertzen? -esan nion Kontxak entzuten ez zigula jabetuz.

- Bai. Ondo da, lagunduko dizut -erantzun zidan Andonik.

Azkenik heldu ginen. Kontxak haien logelara eramanez gintuen.

- Kaixo, ondo al zara? Bisita daukazu -Kontxak.

- Ondo nago. Eta nor da bikote hau? -Santiagok.

- Lagun baten biloba eta laguna, eta zurekin hitz egitera etorri dira. Beraz bakarrik utziko zaituztet.

- Kaixo bikote. Zertaz nahi didazue hitz egin?

- Orain arte Kontxarekin egon gara, eta zure amodiozko istorioa kontatu digu.

- Emakume hau! -esan zuen barreka.

- Nire amama orain dela gutxi hil zen, eta eman zidan azkeneko gauza lepoko bat izan zen, barnean mutil ezezagun baten argazki zaharra eta “nere sentimendua...” abestiaren hasiera zeuzkana. Zure emazteari galdetu diogu ea abestia ezagutzen zuen, eta amodiozko istorio bat aipatu digu -azaldu nion.

- Ja, ja, ja... -egin zuen barre- eta lepokoa erakuts diezadakezu, Nerea?

- Jakina, eutzi.

Santiagok, pultsu eskasa gora beheara, ireki egin zuen.

- Hau ni naiz eta! -esan zigun Santiagok.

- Zer? Nire amama ezagutzen duzu?

- Nola du izena zure amamak?

- Maria, Maria Etxenike Unzueta.

- Zer? Hori nire maitea da eta.

- Nola? Nire amama dela zure istorioko emakumea?

- Bai, horixe bera. Eta zure begi berde horiek Mariarenak bezalakoak dira.

- Orain ulertzen dut dena. Horregatik dago argazkiaren atzean abesti hori, biok abesten zenutena delako -orduan irribarrea agertu zen nire aurpegian-; duela gutxi arte oso triste nengoen, ez nuelako amama berriz ikusiko, baina orain pozik nago, azkenean jabetu naizelako amama Mariak esan nahi zidanaz.



Ipuinak



*Elene Zuazua
Uribelarrea*

Akzesita 13-14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



Hiru milesimagatik

Burundin, 2031. urtean

- Kontaidazu, aitona Msarille, Australiako olinpiadetara joan zinenekoa.

Susa txikia aitonaren altzoan eseri zen, Bururiko txabolako sutondoan. Neskatilak bere begi beltzekin adi-adi begiratu zion aitonaren aurpegi zimurtuari, irribarreka.

- Entzuna duzu jada, ez al zaitu aspertzen? -aitonak ez zeukan gogorik istorioa berriz kontatzeko, baina ez zuen bilobaren ilusioa zapuztu nahi. Hain irribarre polita zeukan! Zaila egiten zitzaion Susari ezetz esatea, eta zera esan zion:

- Tira, horrela begiratzen badidazu, ongi da -esan zion aitonak bilobari-. Horrelako begiekin edozer lor dezakezu! -neskatilak irribarre egiten zion bitartean, gizonak altzoan hartu zuen haurra. Arnasa sakon hartu eta istorioarekin hasi zen:

«Bum! Bum! Ruandako tutsien aurkako bonbek zarata izugarria ateratzen zuten. Amak, Safik, Mgarik eta laurok ihesari eman genion, aldean ezertxo ere ez geneukala. Ez ginen tutsiak, baina soldaduei berdin zitzaien. Gure auzokoen bila etorriak ziren, Burunditik etorritako tutsiak zirelako zurrumurrua zabaltzen aspaldian. Hasieran, euren bila bakarrik etorri ziren, baina oso atseginak zirenez, ez genituen bakarrik utzi nahi izan. Horregatik, soldadu hutuek bonbak erabili zituzten. Jende


asko hil zen, eta horien artean gure auzokoak, aita eta nire neba Mgari. Hau 1994an gertatu zen, nik hamahiru urte nituela. Honen ondoren, amak, Safik eta hirurok gu bizi ginen Ruandako Butare hiritik Bururira ihes egin genuen, Burundiko herri hatera.

»Bururin oso ondo hartu gintuzten, baina ama alarguna zenez, laster ezkondu behar izan zuen: Pierre Tulavuiarekin ezkondu zen hona heldu eta bi astetara. Amarekin oso ondo konpontzen zen, baina arrebak eta biok ez genuen ongi ikusten: harroa zen, eta mespretxatu egiten gintuen. Dena nahiko ongi zihoan: Safi eta biok eskolara joaten ginen, eta eskola ondoren behiak zaintzera. Batzuetan lagunekin jolasten genuen, eta lasterka egin behar zen jolasetan beti neu nintzen irabazle. Horregatik, nire izena, Msarille Tulavuia, oso ospetsua egin zen nesken artean. Niri ordea, neskak ez zitzaizkidan asko inporta.

»Horrela joan zitzaizkidan hiru urte, baina hamasei urte bete nituenean, Safi eta Pierre joan zitzaizkigun izurritearen ondorioz, eta ama eta biok bakarrik geratu ginen. Hiletan ezagutu genuen Pierren ama frantziarra: emakume zakarra zen eta ez gintuen ondo hartu txabola txiki batean erdi biluzik bizi ginela ikusi zuenean. Eskerrak laster itzuli zela Frantziara, bertakoak gogaitzera.

»Ama eta biok pobrezian bete-betean sartu ginen, eta geneukan bakarra bi behi eta ahuntz zahar bat ziren. Horregatik, herrian lasterketa bat antolatu zela entzutean, segituan eman nuen izena. Lasterketa hura erraz irabazi nuen, eta horrekin eskualdeko lehiaketan sartu nintzen. Erraz irabazi nuen hau ere. Horrela sartu nintzen Burundiko lasterketa nagusian.

»Oso urduri nengoen, herrialde osoa begira neukalako, eta batez ere, irabazlearentzat 8.500.000 franko burundiar (ia 5.000 €) zeudelako saritzat. Dirutza horrekin ama eta biok pobreak izateari utziko genion, eta behi batzuk erosiko genituen. Lasterketa hasi zenean, erraz jarri nintzen lehenetarikoa, eta helmugatik gertu geundela, ni eta aurretik zioan gizon bat jarri ginen buru. Zorte izugarria izan nuen, aurretik zihoanari belaunek huts egin eta lurrera erori zelako. Egun hartan, 8.500.000 franko (ia 5000 €) irabazteaz gainera, Burundiko gizonik bizkorrena izendatu ninduten, 16 urte nituela».



Aitonak zigarro erabili bat piztu zuen, bilobak sorgindurik begiratzen zion bitartean. Gizon zaharrak bere astia hartu zuen zigarroari zupada luze bat emateko, eta hautsontzi bezala erabiltzen zuen egur zati borobildu batean zigarrokinak utzi zituen. Neskatilak pazientziaz itxaron zion, aitonak berriro kontakizunari noiz lotuko zain. Zaharrak istorioari ekin zion berriro:

«Bujumburatik Bururira itzuli ginen ama eta biok, diruz eta ospez beteta. Bi hilabete zoragarri igaro genituen bertan, etxe berri batean. Herritar guztiek miresten ninduten, eta neska guztiak neuzkan atzetik. Baina ama ezkontzeko sasoia neukala esaten hasi zitzaidan: Eskualdeko neska aberats ezkongabeak ekarri zituen etxera, baina bat ere ez nuen gogoko: Denak berdinak ziren, harroak eta eder ustekoak. Amak ez zekien ordea niri Kalume Smarilla gustatzen zitzaidala, auzoko neska eder eta atseginena. Baina, amari honen berri eman nionean, haserretu egin zitzaidan: Kalume herriko txiroenetarikoa zen, eta amak nik bizitza oparoa eta lasaia edukitzea nahi zuen. Eta amak izaten zuen aurpegieragatik, berak ekarritako norbait aukeratzea erabaki nuen, lasaitu zedin: Adele Tuvalongak erakarri ninduen gehien, eta berarekin ezkondu nintzen 1997ko abenduaren 16an.

»Urtarrilean 17 urte bete nituen, eta urtebetetze egunean uniforme z jantzitako bi gizon etorri zitzaizkidan etxera: Gubernutik zetoze la esan zidaten, eta 2000. urteko olinpiadetara joateko eskaera egin zidatela zioten. Nola ez, onartu egin nuen eskakizuna (baina Adelekin eztabaida izan ondoren), eta 3 egun geroago Bujumburan zitzatu nintzen gobernukoekin: Sydneyko olinpiadetan parte hartuko nuen, herrialdeko ordezkari bezala, eta irabazten banuen, 3.000.000.000 franko burundiar (ia 1.800.000 €) emango zizkidaten. Entrenatzen hasteko esan zidaten.

»la bi urte igaro ziren, egunero entrenatzen, lanera joan gabe. Sari horrekin zer egin pentsatu nuen denbora hartan, eta dirua Burundiko jende pobreari ematea erabaki nuen. Elkarrizketa asko egin zizkidaten, eta diruarekin egingo nuena telebista eta irratan esan nuenean, herrialde osoak nigan jarri zituen esperantzak, eta Australiara joango ginen atleten artean neu egin nintzen famatuena. Baina urte hartan Adèle eta biok

banandu egin ginen: ama eta Adérentzat oso gogorra izan zen, niretzat izan zenaren aurkakoa. Bestela, bi urte zoragarri izan nituen.

»Sydneyrako hegaldian, Katherina Smimova ezagutu nuen: atleta errusiar bat zen, pertikazko jauzian bere herrialdeko emakumeen ordezkaria. Oso lagun onak egin ginen. Nire bizitza kontatu nion, eta berak berea. Familia ezagun eta dirudun batekoa zen, eta asko haserretu zen hutuekin -tutsien aurkako genozidioa egin zutenekin- nire kontakizuna entzutean. Sariaz hitz egin genuen, eta lehiaketa guztietan saria berdina zela entzuteak asko harritu ninduen. Azkenean, tratu bat egin genuen: Bietako batek irabazten bazuen, dirua erdi bana egingo genuen, eta bestela bakoitza bere diruarekin geratuko zen. Pozik iritsi ginen biok Australiara.

»Olinpiadetako muntaia izugarria zen, ikusgarria. Txundituta geratu nintzen olinpiadetarako egin zutenarekin eta zegoen jendetzarekin, denetarik zegoen: Txinatarak, Hegoamerikarrak, Afrikarrak, Poloniarak... munduko herrialde bakoitzetik bat gutxienez. Laster batean eraman gintuzten bost izarreko hotel handi batera, eta egun pare bat deskantsatzen eman ondoren, entrenatzen jarraitu genuen.

»Olinpiar jokoak hasi zirenean, hainbat lasterketatan eta finalerdietan hartu nuen parte, eta denetan sailkatu nintzen. Azken lasterketa iritsi



zenean ordea, oso-oso urduri jarri nintzen, batez ere hasierako marran jartzean. Mundu osoa begira daukazula jakitea oso latza da, sinetsidazu. Eta bat-batean lasterketa hasi zen: nire indar guztiekin egin nuen lasterka, eta amaiera inguruan, lehena jarri nintzen. Lasterketa irabazita neukala pentsatu nuen, eta baita amarengan, Bururigan eta salbatuko nituen herritarrengan. Bat-batean, atzetik norbait hurbildu zitzaidala sentitu nuen eta helmugatik gertu aurreratu egin ninduen. Nire indar guztiekin saiatu nintzen aurretik neukan AEBtako gizon beltza aurreratzen, baina alferrik. Hiru milesimagatik irabazi ninduen.

»Katherinak emaitza hobeak aterako zituelakoan heldu nintzen hotelera, zilarrezko medailoi baliogabe batekin. Sarrera guztia jendez beteta zegoen, eta nahasmendu hartan Katherina aurkitu nuen. Poz-pozik zegoen, eta lehen saria irabazi zuela esan zidan. Irribarrea aterako zitzaidan, agian, neskak galdetu egin baitzidan zergatik nengoen hain pozik. Harritu egin nintzen lagunaren ahotsean harrotasun doinua entzutean, eta tratuari buruz hitz egiten hasi nintzenean, berak, “zein tratu?” erantzun zidan. Haserre bizian joan nintzen neure gelara. Telefonoa joka ari zen, eta hartu nuenean gure auzokoaren ahotsa entzun nuen, nire ama malariatz hil zela esanez. Hartu ahal izan nuen lehen hegazkinean Bururira itzuli nintzen, amaren hiletarako. Nire bizitzako egunik tristeenak izan ziren haiek.

»Handik urtebetera gauzak hobetzen hasi zitzaizkidan: Txikitandik maite izan nuen neskarekin, Kalume Smarillarekin, ezkondu nintzen 2001eko abuztuaren 3an, eta gauean gure txabola berri bezain eskasera heldu ginenean, hiru milesimetan pertsona baten bizitza guztiz alda daitekeela ohartu nintzen.»

Kontakizun guztian serio egon zen 9 urteko neskatila beltzari irribarre bat atera zitzaion gizonak kontakizuna amaitu zuenean, eta bere aitona besarkatu zuen, Bururiko txabola zahar eta eskasean.

Ipuinak




*Nahia Bilbao
Gandarias*

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Loto-lorea

Ariadne daukat izena. Greziako irla batean bizi naiz, Santorinin hain zuzen ere. Hamazazpi urte ditut, ilehoria naiz eta itsasoaren koloreko begiak ditut, nire amarenak modukoak. Pertsona alaia naiz, esango nuke nire zaletasun handiena barre egitea dela, bizitza minuturo bizitzea.

Nire gurasoak 10 urte nituenean hil egin ziren Atenasen, udako oporrak igarotzen zeuden bitartean auto istripu baten ondorioz. Oso gogorra izan zen hilda zeudela onartzea eta oso gaizki pasatu nituen udako oporrak. Triste nengoen eta ez nuen ezer egin nahi, bakarrik egon baino. Gauero zerura begiratu eta gurasoak gogoratzen nituen negar malkotan blai. Amona Elma izan zen nire laguntza handiena eta berarekin joan nintzen bizitzera Santorinin tipikoak diren etxe zuri horietako batera. Bera zen zaintzen ninduen bakarra, une horretan munduan neukan pertsona bakarra.

Betidanik egon naiz amonarekin oso lotuta. Txikia nintzenean, greziar mitoak kontatzen zizkidan: Afrodita, Atenea, Zeus... greziar jainkoen kondaira guztiak zekizkien eta nik arreta handiz entzuten nion, harriturik, begirik kendu gabe, baina beti iruditzen zitzaidan amonak gogokoen zituen istorioak ondinenak zirela. Berak esaten zuenez, milaka urte lehenago Grezian ondinak zeuden eta laku, erreka edo iturrietan bizi ziren. Oso neska ederrak ziren: beraien gorputzak zetazko oihalekin biltzen zituzten. Etorkizuna aurreikusi zezaketen eta askotan gizon eta arrantzaleak liluratzen zituzten beraien kantuekin.

Duela bi urte amona oso gaixorik jarri zen, bat-batean itzelezko sukarra harrapatu eta sei hilabete egon zen ohean gaixo, baina ez zuen hobera egiten. Oso triste nengoen amona ere galduko nuen beldurrez. Uda hartako egun eguzkitsu batean gosaria ematera abiatu nintzen bere logelara, zeina oso greziarra zen: logela handi eta argitsua, altzariak zuri-zuriak eta leku guztietatik oihal koloretsuak. Amona oso ahulduta zegoen, ezin zen ibili, ezta barbarik egin ere, baina egun hartan hitz egiteko ahaleaginean ari zela iruditu zitzaidan. Aulkia bere oherantz hurbildu nuen eta hauxe esan zidan:

- Ariadne maitea! Ikusten duzunez, oso gaixorik nago eta ez dut uste bizitzak egun asko oparituko dizkidanik -negarrez hasi nintzen.

«Ez ezazu negarrik egin laztana, pertsona gogorra naiz eta ez dut utziko inork bizitza kentzea, baina horretarako arreta handiz entzun behar didazu -baiezkoa egin nion buruarekin.

»Nire gaixotasuna sendatzeko modu bakarra dago eta zure esku dago dena. Badakit lortuko duzula oso neska argia zarelako -urduri nengoen.

»Bihar goizean Santorinitik irtengo zara. Portuan txalupa bat hartu eta Caliae irlara abiatuko zara. Bertara heltzean, loto-lorea aurkitu eta ahalik eta lasterren etxera bueltatu beharko duzu, lore horren zukua baita nire gaixotasuna sendatuko duen erremedio bakarra. Ez izan beldur, ondo joango da dena.»

Baina nola ez nuen beldurrik izango! Nire esku zegoen amona Elmaren bizitza, nik baino ezin nion lagundu eta ez nekien nola demontre aurkituko nuen lore hura. Zer aurkituko nuen bertan? Nork esango zidan loto-lorea bilatzeko bidea?

Gau osoan zehar buruari bueltaka ibili nintzen. Ezin nuen lorik egin. Hurrengo goizean nire abenturari hasiera emango nion eta oso urduri nengoen.

Goizean goiz jaiki nintzen. Amona Elma lotan zegoen. Ahalik eta azkarren gosalduta amonari ohar bat utzi nion bere logelako mahaitxoan nire bidaiari hasiera ematera nindoala eta ahal nuen guztia egingo nuela esanez.

Etxeko eskailerak binan jaitsi nituen egunero lez. Etxe aurrean Thomas zegoen, Santoriniko asto-gidaria, bertan ez baitugu autorik erabiltzen astoa baizik. Animaliarene gainera igo eta aldapa beheara abiatu ginen. Thomasek amonaz galdetu zidan eta nik erantzun nion oso gaixorik zegoela eta berarentzat loto-lorea bilatzera nindoala. Gizonak aurpegi arraroa jarri zidan.

- Benetan uste al duzu amona loto-lorearekin sendatuko dela?

Barre algaraka hasi zen. Ni oso lasai nengoen, banekielako nire amonak egia esaten zuela. Aurkitu egingo nuen, ziur!

Portura heltzean, txalupa bilatzeari ekin nion. Ordu erdi igaro zen eta oraindik ez nuen txaluparik aurkitu. Etsita nengoen eta portu ondoko banku batean esertzea erabaki nuen.

Beste ordu erdi bat pasatu zen eta behe-laino artean gizon zahar eta konkordun bat ikusi nuen. Hurbiltzen zihoan heinean zutitzen hasi nintzen, Caliae irlara joateko txalupa gidaririk ezagutzen zuen galdetzeko.

Bere alboan nengoela konturatu nintzen begi bat falta zitzaiola, eta begia estaltzeko partxe bat zeramala.

- Kaixo! Cyrano naiz. Zertan dabil zu bezalako neskato eder bat hemen jesarrita?

- Caliae irlara joateko txalupa baten bila nabil. Ba al dakizu nor den txalupa gidaria?

- Jakingo ez dut ba, ni neu naiz eta!

Barrezka hasi ginen.

- Orduan joan al naiteke?

- Bai noski!

Cyranok nire motxila hartu eta txaluparantz abiatu zen. Txalupa txiki eta zaharra zen, egurrezkoa, eta zati batzuk faltan zituen, usteldu samar baitzegoen. Hura ikustean iritzia aldatu nuela eta ez zela beharrezkoa irlara joatea esatekotan izan nintzen, baina agure zahar hura ikustean bihotza samurtu egin zitzaidan eta txalupara igo nintzen.

Bi orduko bidaia izango zela esan zidan eta bien bitartean lo kuluxka bat egin nezakeela.

Halaxe egin nuen. Motxilatik esterila atera eta zoruan etzan nintzen, Cyranok txalupa martxan jartzen zuen bitartean.

Ametsetan hasi nintzen: amonak zer edo zer esan nahi zidan, baina ez nion ondo entzuten. Ondinei buruz ari zen, baina ez nion ulertzen.

Bat-batean zer edo zer sentitu nuen aurpegian. Begiak zabaldu nituen eta Cyrano zapi batekin kilimak egiten ari zitzaizkidala konturatu nintzen

- Esnatu zaitez loti eder, Caliaen gaude!

Altxatu, ingurura begiratu eta irla ñimiño bat ikusi nuen.

- Arroz ale hori al da Caliae?

- Horixe bera! Zer uste zenuen, Atenasen bestekoa zela?

Cyranori zor niona eman eta txalupa portutik urruntzen zen heinean, eskuarekin agur esaten geratu nintzen.

Txalupa atzean utzita, aldapa gora abiatu nintzen. Gainera aldera heltzeko muino bat igo beharra zegoela konturatu nintzen. Ez nuen denbora gehiegi behar izan bertan inor ez zela bizi konturatzeko. Ez zegoen etxe bat bera ere! Zer egingo nuen nik irla bakarti hartan? Nola aurkituko nuen lorea?.

Lasaitu nintzenean, lekuri garaienera joatea erabaki nuen, loto-lorea aurkitzeko esperantzaz.

Erraza zirudien, baina hamabost minutu behar izan nituen irlatxo hartako tontorrera heltzeko. Gora iristean, liluratuta geratu nintzen, bertatik itsasoko irlatxo guztiak ikusi ahal baitziren. Bueltatxo bat ematen hasi nintzen lorearen bila, baina ez zegoen inongo arrastorik. Ibiltzen jarraitu nuen, nora nindoan argi jakin gabe, kobazulo baten atarian nire burua ikusi nuen arte. Eguna arinegi pasatu zitzaidan eta zerura begiratzean konturatu nintzen iluntzen hasita zegoela, eta kobazulora sartzea izango zela ideiarik onena.

Barrura sartzeaz batera gero eta hurbilago entzuten nituen kantuak.

Zer izango zen hura? Ez nuen denbora gehiegi behar izan deskubritzeko.

Bat-batean konturatu nintzen ez nintzela ni izango bertan lo egingo zuen bakarra. Emakume eder batzuek osaturiko talde bat zegoen: begien aurrean nituen amonak txikitan esandakoak. Emakume haiek ondinen itxura zeukaten, beraien gorputzak zetazko oihalekin bilduta zeudelako eta kantu liluragarriak abesten zituztelako, baina nire buruak ezetz zioen. Nola izango ziren emakume haiek ondinak? Ondinak ez dira existitzen eta!

Emakume haietako bat nigana hurbildu zen.

- Kaixo, nor zara?

Ahots lotsati eta beldurtu batek erantzun zuen:

- Ariadne daukat izena, eta loto-lorearen bila etorri naiz amona sendatzeko.

Hori esan nuenean, emakume guztiak isildu eta barre-zantzoka hasi ziren. Susmo txarra hartu nien.

Beste batek hauxe esan zidan :

- Ondinak gara. Eta gu beste inork ezin du loto-lozerik aurkitu mundu honetan.

- Nahi duzuen emango dizuet, baina mesedez esadazue non dauden loreak, amona Elma sendatzeko behar ditut eta.


- Lore hori itsaspean dago normalean. Ur gainean hazten da, baina jeinu batek itsasperatu egin du jendeak hartu ez dezan. 40 metroko sakontasunean dago eta gizakiok ezin zarete bertaraino ailegatu, beraz... agian gure laguntza beharko duzu.

- Hartu, mesedez, lorea! Ez baitut amona Elma galdu nahi gurasoak galdu nituen bezalaxe -erantzun nuen.

- Lasai neskato! Ez dizkizugu gauzak hain erraz jarriko. Loto-lorea eskuratu nahi baduzu, lehenengo eta behin, egingo dizugun galderari ondo erantzun beharko diozu eta erantzun ezik lore gabe geratuko zara.

Mundua erori zitzaidan oinetara.

Ondina guztiak jesarri ziren biribil baten bueltan zer galdetuko zidaten



erabakitzeke. Luzaro egon ziren pentsatzen eta horrek gero eta urduriago jarri ninduen.

Azkenean ondinetako nagusia hurbildu zitzaidan.

- Ongi dago. Ez duzu oraintxe bertan erantzun behar, gau osoa utziko dizugu erantzuna ondo pentsatzeko

Hasperen egin nuen. Hura lasaitua! Denbora izango nuen ongi pentsatzeko.

- Hortxe doa galdera: Zer adierazten du pitagorikoek erabili zuten ikur sekretuak? Bihar goizean, itzartzean, erantzuna eman beharko diguzu, ados?

- Ados.

Oheratzeko ordua heldu zen. Ondinek beraiek eginiko ohetan egin zuten lo; nik ordea, motxilatik esterila atera eta lurrean etzan nintzen. Ezin izan nuen lorik bildu gau osoan: erantzun zuzena aurkitu beharra nuen. Pentsatzen hasi nintzen, baina ez neukan ideiarik ere, baina bat-batean amona Elma agertu zitzaidan aurrean, eta erantzuna asmatzera eramanez ninduen hau esan zidan:

- Gogoratu ezazu txikitan hondartzan kontatu nizun Pitagorasen istorioa: bertan daukazu erantzuna.

Gogo biziz pentsatzen hasi eta berehala etorri zitzaidan erantzuna:

- Bost zenbakia, bizitza, ahalmena eta zauri-ezintasuna -goxo-goxo hartu nuen lo.

Biharamunean goizean goiz jaiki nintzen. Halako batean ondinek deitu egin zidaten. Zutik zeuden denak, ilara baten jarrita, nire erantzuna entzuteko prest.

- Ordua heldu da. Zein da egin genizun galderaren erantzuna, Ariadne?

- Bost zenbakia, bizitza, ahalmena eta zauri-ezintasuna -oso seguru nengoen esandakoarekin.

- Oso ongi. Erantzun zuzena da -esan zidan ondina nagusiak, tristura aurpegiarekin.

- Nik neuk hartuko dizut loto-lorea. Itxaron hemen.

Hura entzundakoan, saltoka hasi nintzen: oso zoriontsu nintzen.

Denbora dezente igaro ondoren, ondina nagusia kobazulora itzuli egin zen eskuan lore eder bat zekarrela. Esku gainean jarri zidan eta bidaia on bat eduki nezala opa zidan.

Porturaino jaitsi nintzen korrika. Bertan Cyrano zegoen, eta harritu egin ninduen ez bainintzen berarekin geratu.

- Cyrano! Zertan zabiltza hemen? Nola jakin duzu gaur nintzela bueltatzekoa?

- Bart gauean laguntza beharko zenuela pentsatu nuen, eta ez zintudan bakarrik utzi nahi.

Besarkada goxo eta luze bat eman genion elkarri.

- Mesedez Cyrano, ahalik eta lasterren egon behar dut etxean.

Cyranok txaluparen motorra martxan jarri eta begiak zabaldu orduko, Santorinin nengoen. Bidaia benetan bizkorra izan zen.

Etxera sartutakoan, oihuka eta pozez gainezka joan nintzen amonaren logelaraino. Hantxe zegoen bera, geldi-geldirik. Ez zuen erantzuten. Berandu zen. Utzi egin ninduen agur esan gabe.



Ipuinak



*Iris Azkarate
Elejabarrieta*

Akzesita 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



Denak hil omen ziren

Ahazten ditugun pertsonak baino ez direla hiltzen esaten zidan amak askotan. Gerra garaian batez ere, inguruko jende asko hil baitzen orduan. Eta nik, ordutik igaro diren 73 urteetan, amaren esana bete dut: gauero pertsona guzti horien izenak errepikatu ditut ahots goran, suabesuabe, nire oroitzapenetan guzti-guztiek bizirik jarrai dezaten.

Herenegun gauean, ordea, asko tristatu ninduen gauza bat gertatu zitzaidan: nire bizitzan lehenengo aldiz, ez nintzen zerrenda osoa buruz errepikatzeko gai izan, eta mesanotxeko hirugarren kaxoiko kutxatxoan gordeta nuen paper jadanik horituan begiratu behar izan nuen gogoratzeko. Izugarri larritu ninduen gertakari horrek. Izan ere, beste batzuetan gertatu izan zitzaidan antzeko zerbait -erosketak egitera joan eta zer behar nuen ahaztea adibidez-, baina kasu hau berezia zen, intimoa, eta garrantzi handia zuen niretzat. Orduan, zera pentsatu nuen: “Eta nork oroituko ditu nik maite izan ditudan pertsonak ni ez nagoenean?”

Berehala bururatu zitzaidan konponbidea: nire historia idaztea. Beraz, gaur goizean, dotore jantzi, eta ahizpa eta biok txikitan horrenbeste denbora elkarrekin igaro izan dugun banku honetara etorri naiz idaztera.

Miren Goikoetxea Zelaia dut izena eta 1926ko uztailaren 5ean jaio nintzen Bilboko Santutxu auzoan. Hiru neba-arrebetatik gazteena nintzen: Matildek nik baino 4 urte gehiago zituen, eta Albertok, berriz, 7 gehiago. Gure familia ez zen oso aberatsa -aitak fabrikari irabazten zuenarekin egiten genuen aurrera-, baina hala ere, inguruko familiak

bezala bizi ginen: atiko batean genuen bizilekua; hiru neba-arrebok eskolara gindoazen, arratsaldeetan lagunekin jolasten genuen... Haurtzaro laburra izan genuen ordea: gerrak urte zoriontsu haiek eramane zituen berarekin, eta sufrimendu, beldur, min eta etsipenez beteriko garai gogorrek bizitzera kondenatu gintuen.

11 urte besterik ez nituen aita eta Alberto neba errepublikaren alde borrokatzera joan zirenean, Markinako eta Otxandioko fronteetara, hurrenez hurren. Nik, artean, ez nekien oso ondo zergatik edota zertara zihoazen, baina joan ziren egunean, amaren begietan atera ziren malkoek argi utzi zidaten oso gauza garrantzitsuagatik joan zirela. Izan ere, amak ez zuen ia inoiz negarrik egiten.

- Ez zaitez kezkatu, Mirentxu maitea -esan zidan aitak joan aurretik besarkatu ninduenean-. Ez gaitzazu sekula ahaztu, eta ikusiko duzu nola hemendik aste gutxira bueltatzen garen Alberto eta biok. Maite zaitut, laztana.

- Nik ere bai -xuxurlatu nion erdi negarrez, masailean musu bat ematen niola.

Egun hartatik aurrera benetako garai latzak hasi ziren. Kalean ez zen gerra besterik entzuten, eta fronteetan hildako gudarien zerrenda gero eta luzeagoa bilakatzen ari zen.

Gogoan dut ia egunero amak gure aurreko etxean bizi zen emakume batengana bidaltzen gintuela Matilde eta biok, txandaka. Mari zuen izena, eta bere senarra Alberto zegoen batailoiko buruzagia omen zen. Horregatik, Marik, sarritan bertako berriak izaten zituen, senarrak bidaltzen zizkion gutunetatik jasoak, eta gu nebaz galdetzerajoaten ginen. Marik ematen zizkigun albisteak gero eta txarragoak ziren: batailoietan armak falta omen ziren, elikagaiak bukatzen ari zitzaizkien eta gainera, frankistak euskal eremuetan barruratzen ari ziren.

Gu ere, gerraren ondorioak pairatzen hasiak ginen jada. Beldurra nagusitu zen hiri osoan, eta jadanik ezin zen errepublikaz edo gudariez errime hitz egin, xuxurlaka eta erdi ezkutuan egiten genuen, badaezpada. Alde guztietan zabaldu zen gosea: ia ez zegoen janaririk, eta eros zitekeen apurra oso garestia zenez, amak kontu handiz neurtzen zuen jeneroa.

Baina txarrena, bizitza osoan ahaztuko ez genuena, hilabete pare bat beranduago iritsi zen, apirilaren erdialdean, hegazkin alemaniarrek Bilbo bonbardatu zutenean. Gogoan dut hegazkinak iragartzen zituzten kanpaiak joka hasi zirenean amak bota zuen garrasia:

- Matildeeee! Mireeeen! Azkar, azkar, goazen babeslekura, hegazkinak datoz!

Arreba eta biok ama sukaldetik irteten baino ez genuen ikusi ia. Berehala, eskaileratan behera joan ginen korrika, gure etxetik bi kalera zegoen babesleku txikirantz. Gogoan dut momentu hartan ez nuela ezer ulertu. Hala ere, oroitzen naiz, segituan konturatu nintzela egoeraren larritasunaz amak nire besoa estutzen zuen indarragatik: sekula ez ninduen hain gogor eutsi -min emateko bezainbeste-, eta indarrez tira egiten zidan aurrerantz, azkarrago korrika egin nezan. Eta nik hori besterik ez nuen egin: korrika ahalik eta lasterren, batez ere, urrunean, lehenengo hegazkinen zaratak, eta gero bonbek lurra jotzean sortutako burrunba beldurgarriak entzun nituenean.

Babeslekua bi etxe-blokeren arteko hutsunean zegoen, eta lurrean egindako pasabide batetik sartzen zen. Eskailerak zituen behera jaisteko, eta ondoren, blokeetako baten azpiko garaje antzeko batera ematen zuen. Han babestu ginen ama, Matilde, ni, Mari eta inguruko beste hogeit bat pertsona bonbardaketak iraun zuen ordu erdi eskasean. Izan ere, hegazkinek hiru bider bota zituzten bonbak: lehenengo aldia nahiko laburra izan zen, eta bukatu zela iruditu zitzaigunean, apurka-apurka, babeslekutik ateratzen hasi ginen. Segituan sartu behar izan genuen berriro, ordea. Hurrengo erasoak lehena baino askoz luzeagoak eta gogorragoak izan ziren, eta horrek gure beldurra eta urduritasuna areagotu zituen. Guztia amaitu zenean, inor ez zen babeslekutik irteten ausartu, eta geldi eta isil-isilik geratu ginen, harik eta gizon batek babeslekuko atea jo zuen arte:

- Joan dira hegazkinak, kanpora irten zaitezketel! -oihukatu zuen.

Bere tonuak ez zuen poztasunik adierazten. Irten eta berehala ikusi genuen zergatik. Auzo osoa txikituta zegoen: etxe gehienak birrinduta geratu ziren; jende asko ikusten zen kaleetatik korrika, zaurituta batzuk,

negarrez edo laguntza eske beste batzuk... Hondamendia erabatekoa izan zen, bai fisikoa, bai psikologikoa; erabat izututa eta ukituta geunden guztiok. Zer egin ez genekielako geratu ginen.

Bonbardaketa horien ondoren, beste hainbat eta hainbat izan ziren. Egoera gero eta okerragoa zen, batez ere errepublikarrontzat, eta horregatik, hilabete geroago, Eusko Jaurlaritzak 5 eta 12 urte bitarteko haurrak atzerrira bidali zituen, erbestera. Nik 11 urte nituen, eta ondorioz, haur horietako bat izan nintzen. “Habana” izeneko itsasontzian irten nintzen Santurtzitik, beste 4.000 ume eta irakaslerekin batera, Ingalaterrarantz.

Itsasontzian sartu aurreko momentuaz oroitzen naiz. Ama eta Matildek lagundu ninduten portura, eta joan aurretik, amak estu-estu besarkatu eta esan zidan:

- Zaude lasai Miren. Begira zenbat ume doazen zurekin, lagun pila egiteko aukera izango duzu. Gainera, ikusiko duzu nola hemendik gutxira bueltatzen zaren, eta zatozenean, zuri horrenbeste gustatzen zaizun zopa prestatuko dizut.

Baina ni ordurako gerra hark nola funtzionatzen zuen ulertzen hasia nintzen, eta horregatik, berehala jakin nuen ama esaten ari zena ez zela egia. Malko lodiak hasi zitzaizkidan masailetan behera. Matildek heldu ninduen orduan.

- Mi... -esan zidan, berak bakarrik erabiltzen zuen ezizen hura erabiliz-. Entzun ondo, Mi. Dagoeneko ez zara umea, eta badakit ez zaizula batere gustatzen horrela tratatzea. Beraz, gauzak argi esango dizkizut. Inork ez daki zenbat denbora emango duzuen erbestean, baina ikusiko duzu han hemen baino askoz hobeto izango zareten. Baina zuk ez gaitzazu sekula ahaztu, gogoratu beti errepublikarra zarela eta egon zaitez harro horretaz. Nik zin egiten dizut ahal dudanetan idatziko dizudala, eta zutaz oroituko naizela momenturo.

Eskua soinekoaren poltsikoan sartu eta bioi horrenbeste gustatzen zitzaigun brontzezko panpinatxo atera zuen.

- Eutzi, Mi, zauden lekuan zaudela asper ez zaitezen -adierazi zidan, bekokian musu emanaz.



Itsasontzira igotzean, agur egin nien amari eta Matilderi. Gogoan dut irudia: ama negarrez, sekula baino hunkituago, eskuaz agur egiten zidala; eta Matilde, nire Mati maitea, bere soineko berde iluna jantzita, geldi eta niri begira, malkoak masailetan behera erortzen bazitzaizkion ere, irribarre egiten saiatuz.

Hura izan zen ikusi nituen azken aldia. Ia bi urte geroago, Southampton-eko kanpamendutik Santurtzira itzuli ginenean, maite genituen pertsonak berriro ikusteak sortzen zigun poztasuna ezkutatu ezinik, nire bila ez zen ez amarik ez Matilderik agertu. Bai ordea, 60 urte inguruko moja bat. Eskumako sorbaldan berehala ezagutu nuen marrazki bat zeukan: Frankoren arranoa. Inongo sentimendurik transmititzen ez zuen ahotsez galdetu zidan:

- Miren Goikoetxea Zelaia?

Baietz esan nion, nire bila inor ez agertzeak sortzen zidan negargura ezkututzen saiatuz.

- Sor Teresa naiz -esan zidan emakumeak-. Zatoz Miren, jarrai nazazu.

- Eta ama? Non dago nire ama? Zergatik ez dira bera eta Matilde etorri? -galdetu nion mojari.

- Neu etorri naiz zure bila! -bota zidan ia garrasika, eta bere begirada zorrotzak izutu egin ninduen-. Ez ezazu horrenbeste galderarik egin! Tira, zatoz, gero azalduko dizut dena.

Aurreko bi urteetako lagunak ikusi nituen beraien amekin, aitekin, neba-arrebekin... Southamptonen gerrako gorabeheren berri izan genuen, eta zoritxarrez, denok genekien Francok guda irabazi zuela. Hala ere, gertaera hura momentu hartan mundu guztiak ahaztua zuela zirudien, eta han zeuden gehienek aurpegiek maite zituzten pertsonekin berriro elkartzek sorturiko poza adierazten zuten. Nireak ez, ordea. Oraindik ez nuen ezer ulertzen, baina badaezpada, ez nintzen mojari ezer galdetzera ausartu.

Sor Teresa jendetzaren artetik igaro zen, bera bezala jantzita zegoen moja batekin elkartu zen arte. Honen atzean 7-8 urteko neskatila bat

azaldu zen. Kanpamendutik egiten zitzaidan ezagun, baina ez nekien nola zuen izena. Begiak oso distiratsu zituen, negarrari eusten balego bezala, eta horregatik, bere bila ere inor ez zela etorri jakin nuen. Sor Teresak nire susmoak baietsi zituen:

- Miren eta Irene; ikusten duzuenez, ez da inor zuen bila etorri. Tira, entzun ondo eta ez egin negarrik. Miren, zure ama eta arreba hilda daude. Zuen etxera bonba bat bota zuten eta ezin izan zituzten gorpuak aurkitu. Aitari eta nebari buruz ez dakigu ezer, baina ia segurua da dagoeneko hilda egotea. Irene, zure amak jada ez zintuen maite, eta beste nonbaitera ihes egin zuen. Ikusten duzu ez zintzaizkiola batere axola -azken esaldi hau mespretxuz esan zuen.

Irenerentzat eta niretzat entzun berri genuena gerra osoko bonba guztiak baino gogorragoa izan zen. Neskatilak ezin izan zion gehiago eutsi, eta negarrari eman zion.

- Isil zaitez! Negarrik ez egiteko esan dizut! -garrasi egin zion mojak Ireneri-. Tira, tira, ez zaitezte kexatu, zuentzat berri onak ere baditut eta. Orain Donostiara joango gara, eta bertan asko maiteko zaituzteten familiekin bizitzera joango zarete. Zuen gurasookin baino askoz hobeto egongo zarete!

Minutu batzuk geroago kotxe bat iritsi zen, eta bi mojak, Irene eta ni igo egin ginen. Berehala abiatu ginen Donostiarantz. Isil-isilik eman genuen bide osoa Irenek eta biok, zer pentsatu asko baikenuen. Bidaian, Sor Teresak zera esan zigun:

- Hemendik aurrera, izen eta abizen desberdinak edukiko dituzue. Miren, zu Maria García Velazquez izango zara, eta Irene, zu, Susana Gómez Ramos deituko zara. Argi al dago?

Irenek eta nik baietz erantzun genion, nahiz eta ez genuen izena aldatu beharraren zergatia ulertzen.

Donostiara heldu ginenean, zazpi bat pertsona genituen zain. Irene haietako batzuekin eramán zuten, eta ni gainontzekoekin. Aurrerantzean gure “familia” izango omen ziren.

- Ni Manuela naiz, zure ama, eta hauek Carlos eta Jose dira, zure nebak -bota zidan ni jaso ninduen emakumeak, zakar.

Etxera heldu ginenean, Isidro aita ezagutu nuen, eta gizon hark itzelezko beldurra sorrarazi zidan. Izan ere esan zidanak harri eta zur utzi ninduen:

- Etxe honetan zauden bitartean ahaztu itzazu gurasotzat zenituen horiek erakutsi zizkizuten ideal errepublikarrak. Zorakeria da horrekin burua betetzea. Hemen, agintari bakarra, benetan gogoangarriena, Francisco Franco Bahamonte da; argi gera dadila!

Hau entzutean, Santurtzin Matildek esan zidana etorri zitzaidan gogora: “Zuk ez gaitzazu sekula ahaztu, gogoratu beti errepublikarra zarela eta egon zaitez harro horretaz”. Momentu hartan jakin nuen urte gogorak igaro behar izango nituela “nire familia” berri harekin. Eta ez nengoen oker: Isidrok mojen kolegio batera eramanez ninduen, egunero hainbat bider errezatzen genuen etxean eta igandero elizara joaten ginen -nire etxean egiten genuenaren ia kontrara-, Francok egindako “hobekuntza” guztien berri izan nuen behin eta berriro, bai gurasoei bai mojen frankismoaren ideiak inposatu baitzizkidaten... Gainera, ezin nuen jendaurrean nire guraso eta neba-arreben heriotzagatik negarrik egin, eta ezin nituen inola ere aipatu. Beraz, hainbat urtez, isilik egotera kondenatu ninduten, eta ondorioz, ez nuen sekula lagunik egin.

Egoera tamalgarri hura ia 8 urtez pairatu ondoren, 20 urterekin, etxetik ihes egin eta Bilbora bueltatu nintzen. Hemen, enpresa txiki bat zeukan txikitako lagun baten osaba errepublikar batengana joan nintzen laguntza eske, eta berak bere etxean geratzea eskaini zidan, enpresan laguntzearen truke. Eta horrela bizi izan naiz hainbat urtez, harik eta Migelekin ezkondu eta berarekin bizitzen jarri nintzen arte. Geroztik, zoriontsu bizi izan naiz Migelekin.

Idazten bukatu dudanerako, masailak guztiz bustita ditut. Gurasoez, Matildez eta Albertoz oroitzean ezin izan diot gehiago eutsi, eta negarrez hasi naiz. Ni baino urte batzuk nagusiagoa dirudien emakume bat hurbildu zait orduan.

- Ondo al zaude? -galdetu dit adeitsuki.

Eta nik, negar batean, neure historia idazten nabilela kontatu diot.

- Utziko al didazu idatzi duzuna irakurtzen? -galdetu dit-. Nahi baduzu, egunkaria irakur dezakezu pixka bat lasaitzeko -iradoki dit.

Nik bere proposamena onartu eta eskaini didan “Gara”n iltzatu ditut begiak. Ezinezkoa egiten zait irakurtzea, beraz, argazkiak ikusten hasi naiz. Bat-batean, emakumea negarrez hasi dela konturatu naiz, eta burua biratu dut berari begiratzeko. Eta orduan, ez ditut emakume ezezagun baten begiak ikusi, mila bider begiratu izan ditudan begi urdin eder haiek baizik; azkenekoz ikusi nituenean bezala, negarrez.

- Matilde? -galdetu diot orduan, gertatzen ari zena sinetsi ezinik.

- Miren? Mi? -izan da bere erantzuna.

Segundo batez, bata besteari tinko begiratu diogu. Ondoren, ametsetan ez ginela ziurtatu dugunean, elkar besarkatu dugu gogor, urte luze hauetan lapurtu dizkiguten besarkada guztiak errekuperatu nahian bezala.

- Ezinezkoa da hau, ezinezkoa! -esan dit negar batean-. Hil egin zinela esan ziguten etxera etorri ziren mojek!

“Moja” hitza entzutean, dena ulertu dut. Matilde nigandik pixka bat urrundu, eta galdetu diot:



- Buruan tunika zuria eta eskumako sorbaldan Francoren ikurrak zituzten mojak al ziren?

Baietz egin du arrebak buruaz.

- Santurtzira heldu ginenean, nigana ere horrelako moja bat etorri zen -azaldu diot-. Zuek ere hil egin zinetela esan zidan...

Ezin izan dut esaldia bukatu, berriz ere negarrez hasi bainaiz. Matildek berriro besarkatu nau, eta horrela egon gara denbora luzez, elkar besarkatuta eta negar batean, harik eta pixka bat lasaitu eta batak besteari gertatutakoa kontatu diogun arte.

- Moja haiek etorri zirenean Ingalaterrako kanpamenduan gaixotasun arraroren baten ondorioz hil zinela esan ziguten, eta asko sentitzen zutela lehenago ez jakinarazi izana. Orain konturatzen naiz aldeaz aurretik zegoela dena pentsatuta, eta haien helburu bakarra zu gugandik urrunduta eta beste "guraso" batzuei emateko lapurtzea zela. Itzelezko kolpea izan zen hura guretzat, eta ama bizitza osoan errudun sentitu izan da zu Ingalaterrara bidali izanagatik. Duela hamabi urte hil zen, bihotzekoak jota.

- Eta aita eta Alberto? -galdetu diot, esan berri didanak sortu didan samina pixka bat baretu denean.

- Zu joan eta astebetera edo, Marik Alberto hil zutela kontatu zigun. Aitari buruzko berririk ez genuen izan denbora luzez. Hilabete batzuk geroago, Burgoseko kartzela batean fusilatu zutelajakin genuen arte. Oso gogorra izan zen hiru heriotza hauei aurre egitea guretzat -bukatu du Matildek.

Nik neuri dagokidan zatia kontatu diot, eta gero berbetan jarraitu dugu denbora luzez. Ondoren Matildek zera proposatu dit:

- Miren, zergatik ez dugu gure historia idazten eta egunkarietara bidaltzen?

Idea ona iruditu zait, eta biok nire etxera joan gara kontaketa osatu eta bukatzera.

Ipuinak



*Elena Arbonies
Jauregi*

Irabazlea 17-18 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Zoroarena

Printze eta printzesa jaiotzen gara guztiok, baina geure gurasoek igel bihurtzen gaituzte. E. Berne

2009ko otsailaren 8a, astelehena

Urduri, oso urduri dago aita.

Nola egongo ote da Irene. Zergatik ez dator jada emaztea.... Eskerrak! Hemen dago!

- Nola dago? Noiz arte egon behar du? Noiz irtengo da? Zer dio berak? Eta medikuak? -egonezinez itaundu zuen aitak.

Negarrari eman zion amak alabaren bisitatik ateratzean. Atsekabeturik, lur jota zegoen, bere bizitzaren argitxoetako bat itzaliko bailitzaion.

- Ez nau ezagutu ere egin. Baina... Baina medikuak esan zuen ni joateko eskatu zuela! Hori esan zuen, ez da hala Joxe? Nik badakit! Ez dut ulertzen, Joxe, ezin dut ulertu...

Ordua beti da, epaitzeak porrotera garamatza. Kurtz koronela, Apocalypse Now

- Begira, haxe da zuen alabak idatziriko azkena -adierazi zuen psikiatrak.

First Avenue edo Bilboko Gran Via. Ez dio axola. Denak azkarregi goaz, noraezean. Ostiral arratsaldea, urteko edozein egun.

Bertan doa negoziiodun gizon tipikoa: traje beltza, maletatxo beltza eta grazia apur bat ematen dion gorbata gorria darama, nolabait alaitasuna erakusteko modua agian. Izkina bakarti hartan dagoen eskaleak bere kaxatxoa hurbildu dio gizonari, esperantza izpi batekin. Baina, nork emango dio bere dirua beste bati, berea baldin bada? Limosnatxo soil bat ere ez.

Bi umerekin datorren emakume horrek ere ez dirudi oso kontent. Korrika doa bere seme-alabak eskutik helduta daramatzala. Meritua du, ez pentsa. Umeen eskolako motxila, karpeta, eta jertsea ere daramatza berekin. Bere berezko zamaz gain, noski.

Auto barruan eztabaidan dirudien bikote bat: “nik daukat arrazoia”, “zeu zara erruduna” ... Bla, bla, bla... Zergatik ez dute soluzioa bilatzen elkarri epaitzen jardun beharrean? Irribarretxo bat, faborez. Barrea da terapiarik onena, zalantzarik gabe. Eta ama-alaba horiek? Hura da hura poltsa mordoa daramatena! Betikoa, arropa eta gauza berrietan bilatzen dute asetasun eta poztasuna.

Zergatik begiratu dit horrela nire albotik pasa berri den mutil gazte horrek? Edo agian, nik begiratu diot, batek daki. Paranoiaz josiak gaude, egia esan. Uneoro geure ingurua geureganatzen dugu, geu gara jabeak, agintariak, despotak, eta nola ez, munduko erregeak. Zer uste dugu, bada, mundua gurea dela? Gu garela zentroa? ... Zenbat galdera egiten ditudan ... Bada, guk geuk daukagu erantzuna, beraz, ez dut gehiago itaunduko.

“UNICEF, ayuda a los refugiados”. Mutil eta neska bikote horrek arrakasta handirik lortuko ez duelakoan nago. Panfletotxoak banatu arren, jendeak irakurri ere ez ditu egiten. Edo agian bai, papertxoak irakurri eta pertsona hobeak izango direla uste baitute. Hobeak ... Zer da hobe eta zer okerra? Zer ona eta txarra? -sentitzen dut, zinez diotsuet, baina galderen fanatiko hutsa naiz- ez dago ona edo txarra denik, geuk bihurtzen ditugu geure interes propioentzat on edo txar diren gauza eta kontzeptuak, eta etiketak jartzen dizkiegu gauza errealei.

Tira, harira bueltatuko naiz... Baina ... Ba al dago haririk? Ez dio axola, izan ere ...

Aizu! Kontu pixka bat! Begira ezazu nondik zabiltzan! Lotsagabea halakoa! Gaur egungo gazte hauek ... Lehen aipaturiko bera, munduaren jaun eta jabe direla sinetsi dute. Hori da arazoa, gauza, ekintza, eta gertaera guztiak sinesten ditugula, geuretzako aproposa den modu batean.

Zeinen gainezka dagoen metroa! Lagundu iezaiozue, baina, emakume adindun horri. Benetan, hau da hau amorrua! Ez al duzue ikusten poltsa lurrera erori zaiola? Ezer ez. Ez dute aintzat hartzen. Gaixoa, makurtzean egindako ahaleginen ondorioz, medikuaren kontsultara deitu beharko du. Berriz ere. Aurreko astean ere egon zen eta! Analisiak, diabetesa ... Eta gona berria ere busti egin zaio. A zer panorama!

Eta eskutik helduta doan neska-mutiko bikote hori? 13 urte baino gehiago ez dute izango, ziur nago. Nire aitak txikia nintzenean hala ikusiko banindu ... “Denborak aurrera egin du aitatxo, gauzak aldatu egin dira, gizartea jada ez da zu gaztea zinenean bezalakoa ...” Zapla! Belarrondoko ederra emango lidake.

Kaixooo? Ez, alferrikakoa da. Bankuan eserita dagoen mutiko gazte hori bere mundu birtualean dago. Lagun birtualak, maitale birtuala ... “wifi” kartela ikusi duenetik bertan geratu da. Lagunekin hitz egiteko modu praktikoa omen da facebook, tuenti edo dena delakoa. Praktiko?



Mesedez! Faltsua, hotza eta fantasiazkoa da eta! Komunikatu bai, baina nola ... Ez duzu beste ordenagailuan dagoenarekin ditugun bost zentzumen zoragarrietako bat ere konpartitzen! “Jajaja” ikustean barrez ari dela sinetsi behar al dut? Niri behintzat maite zaitut idatzita ikusteak ez dit ezer transmititzen. Baina tira ... Ondotik pasa zaion haurrak harrituta begiratuko lioke gaur egun etxe bakoitzean bi ordenagailu egongo ez balira. Orain partxisean jokatzeko sagua klikatzearekin nahikoa da. Hori gutxi balitz, aurkaria ere aukera dezakezu: hasiberria, maila ertaina, maila gorena ... Emozio handiagoa du zure aurrean dagoena porrota ukatzen ikusteak, bere amorru aurpegia, keinuak ... “ez da nire errua izan, dadoa erori egin da.”

Kafea hoztuko zaizu, emakumea! Utz iezaiozu Bixentaren anaiaren semearen lehengusuari buruz hitz egiteari! Lasai, permanentea ondo duzu eta, bihar ez duzu ile-apaindegira joan beharko.

Ez nuen Bilboko mimoen berri. Badirudi nire parean dagoen horrek ez duela jendetzaren artean atentziorik deitzen. Batek daki nor den mozorro horren azpian ezkutatzen dena. Ikusezina sentitze horrek ez du, ez, erreza izan behar. Edo akaso horren bila dabil bera, benetako identitatea erakusteak atzera botako balu bezala. Hein batean, guztiok ezkutatzen dugu geure identitate erreala identitate faltsuaren atzean. Eta okerreana da ez dugula benetakoa azaleratzen, bestearen menpe baikaude.

Seguruenik elizara bidean doazen moja horiek ere mimoaren antzera oharkabekoak izango dira kalekoen begietan. Eta baita ekialdekoak diruditen belodun emakume horiek ere. Beno, kasu honetan oharkabekoa dena lehenago aipaturiko identitatea da, bai faltsua eta are gehiago zinezkoa, ia desagerturik dagoena. Beren arropa edo itxuragatik baino ez diete begiratuko, desberdinak direlako jendetzaren artean. Zergatik desberdinak? Desberdintasuna ... Berdintasun eza ... Ba al dago berdintasunik? Guztiok gara desberdinak, ez da hala? Hiztegiaren arabera, berdina dena, nolakotasun berekoa dena da. Baina, egia esan, nik ez dut sekula nolakotasun berekorik ikusi ... Ene bada ... Berriz ere irudizko hari delakoa galdu dut.

Alaitu ezazu, bada, aurpegia, neska! Tira, hori mundu guztiari esan

beharko nioke, ez baitut orain arte benetako irribarre edo poztasuna duen inor ikusi.

Antzerki obra bat interpretatzen dihardugu egunero. Geurea ez den papera antzezten dugu, eta besteen gidoia ere berezkoa dela uste dugu. Izan ere, sustraiak lurrari lotuta dauden bezala, guk ere maskara bat itsasten diogu geure esentziari.

Agian emakume haurdun horrek sabelean daraman umetxoa pozik egongo da, bero-bero, babestuta eta arriskurik gabe. Aprobetxa ezazu, motel, asko ez duzu hor iraungo eta! Zure amatxoren tripak hori erakusten dit behintzat!

Gutxi barru kanpora aterako zaituzte, zoroen mundu honetara. Argi ibili, ez baitizute barruan geratzen utziko. Beno, hemen ere ez da hain gaizki egoten. Egoten jakinez gero, noski. Nik badakit hor barrutik kanpokoa sentitzen duzuela, eta jada aukeratzen eta epaitzen hasi zaretela, baina kontuz aurreiritziekin. Errealitatea itxuraldatzeak zuon identitate faltsu hori adoretuko baitu. Gauzak eta gertaerak erreparatu. Ez manipulatu, onartu. Gerta daitezela gertatu behar diren moduan.

Ai ene ... Hasi naiz berriro ... sentitzen dut umetxo! Zuk gehiago erakutsiko zenidake, seguru.

Ea ea, hausnar dezadan pixka bat ... Geure gizartearen gaineko kritika bat egiten ari al naiz? Nik istoriotxo bat egitea nuen helburu, eta begira! Zeharo ahaztu dut proposaturiko xedea. Eta hori da gakoa: helburupean jokatzen dugu uneoro. Ezin zeure buruari entzun, ezin zeure erara jardun. Helmuga helburu izanda mugatu baino ez dugu egiten benetako errealitate hori, eta faltsua indartu, txikia, murritzua, gezurretakoa, mugatua dena. Ez dago helburuen beharrik, aski da zeure burua entzun eta ezagutzearekin.

Zer nahi ote du gizon honek?

- Aizu, barkatu, baduzu ordurik? Geratuta nengoen eta laguna azaldu ez denez ... jada ordua dela uste dut -adierazi zuen gizonak.

- Ordua beti da.

- Nola? Zein ordu den jakin nahi dut! Amorratzen hasia nago, ez dakit nire laguna non dagoen, ezta zer ordu den ere ...

- Ordua beti da.

- Zu ez zaude burutik sano. Zoratuta zaude.

- Bai, baina nik hori badakit.

12. kontsulta. Amildegiaari begiratzean, amildegia ere begiratuko zaitu.

F. Nietzsche


- Zer moduz amarekin, Irene?

- Bada.... Aurreko baten ikusi nuen, eta hilda zegoela uste dut

- Nola, baina? Azaldu zeniezadake, mesedez?

- Tira ... beharko...

Etxe arraro batean nengoen, gela handi batean. Egurrezko mahai bat zegoen eta gainean urrezko erloju bat. Horma guztiak ispiluz josita zeuden, baina ezinezkoa zitzaidan neure irudia bereiztea, lausoturik ikusten nuen neure burua. Aztoratuta, etxe hartatik korrika alde egin eta laku batera iritsi nintzen. Ama ikusi nuen bertan, uretan bere islari so. Anaia ere bazegoen, bere txistuarekin. Eskutik heldu genion elkarri, eta aurrera egin genuen mendian zehar, amildegia batera heldu ginen arte. Beldurra sentitu nuen. Egia esan, amildegira begiratze hutsak ikaratu egiten ninduen. Baina tira, behintzat anaia zegoen arriskuen aurrean gu babesteko. Patua, ordea, ez zen iritzi berekoa, eta anaia txistua jotzen hasi zen ama eta biok amildegira gehiago hurbiltzen ginen heinean. Anaiaren musika-doinua genuela, lehenago izandako susmoa egia bihurtu zen. Banekien ama erori egingo zela, baina ez nintzen gauza atzera egiteko. Nire eskuetatik nola askatzen zen sentitu nuen, eskuak izerditan nituela laban eginez askatu ziren bion eskuak, bere goxotasunari agur eginez. Bere begiek ez zuten espresiorik. Horregatik diot hilda zegoela, edo hobeto esanda, bizirik ez zuela. Dena den, amildegiaaren amaieran bere bizitzarekin egingo du topo, bere burua aurkituko du. Ondo dakit nik hori.



Hura ez zen agurra izan, laster ikusiko baitugu elkar.

8,5

Lan ona eta landua. Klasean ikusitakoari garrantzia eman diozu, eta ondo idatzita dago. Hala ere, irakurlea galdu egin liteke zure “zoramen” horretan. Zerbait aipatzekotan, elkarriketak hobe zenitzake, horrek zeure istoriotxo hobe bailezake.

Zoroarena “Diferentzian dago errepikapena, eta errepikapenean diferentzia.” G.Deluze

Urduri, oso urduri dago aita.

Nola egongo ote da Irene. Zergatik ez dator jada emaztea... Eskerrak! Hemen dago!

- Nola dago? Noiz arte egon behar du? Noiz irtengo da? Zer dio berak? Eta medikuak? -egonezinez itaundu zuen aitak.

Negarrari ekin zion amak alabaren bisitatik ateratzean. Atsekabeturik, lur jota zegoen, bere bizitzaren argitxoetako bat itzaliko bailitzaion.

- Ez nau ezagutu ere egin. Baina... Baina medikuak esan zuen ni joateko eskatu zuela! Hori esan zuen, ez da hala Joxe? Nik badakit! Ez dut ulertzen, Joxe, ezin dut ulertu...

Ipuinak



*Itzal Martinez
de Luko Aranguena*

Akzesita 17-18 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Hiru itzal

Lehenengoa

Eguzkia ateratzen zen heinean, nabarmenagoa nintzen ni. Amaren eskutik zihoan mutikoaren zapatilei itsatsita nenbilen, lurretik arrastaka bidaiatzen, betiko legez. Zelan ez ditut gogoratuko, bada, behin zuriak izandako markarik gabeko zapatila horiek.

Arrapaladan hasten ziren momentuan hasten nintzen neu ere korrika, zeruaren argitasunak munduari erakusten ninduela, eta, nik, mundupetik egunak ikustera kondenatua nengoela aitortu ezinik.

Bat, bi, hiru ... Bai, hiru segundo pasa ziren kale amaierako banketxetik irten zen lapurrak tiro egin eta odolak nire islada zeharkatu zuenetik. Bala batek pistola baten kanoitik irteteko bultzatua izan eta nire jabearen gorputza zeharkatu zuen, eta bere bidaiari zehar hasieran agertutako ke zuri hura difuminatzeko, ordea, ez da existitzen denbora unitaterik. Bala galdua, nortasunik gabeko bala.

Lapurrak, kaputxa beltz batez aurpegia estalita zeukan arren, agerian zituen begiak. Begi urdinak, itsaso harroa bezain gordinak, kresala bezain biziak. Ez malkorik, ez haserririk, ez damurik. Begirada galdua, nortasunik gabeko begirada. Eta nik, lurlean etzanda jarraitzen nuela, nire jabeak bere odola zenaz gure lotura ziren zapatila zuri horiek gorriz margotzen zituela ikusten nuen, ezer esan ezinik, jabea salbatu ezinik.

Hiru, lau, bost, sei... mutikoak amaren eskua askatu eta hondorik ez zuen garrasia egin zuen. Nik, berarekin batera, eskua askatu nion bere amaren oinetakoei lotuta bizi zen kideari. Jabeak, betiko moduan, berak

egiten zituen mugimenduak imitatzera behartu ninduen, nire gainera erori zen arte. Bere odolak zeharkatzen ninduen, bizkarrean neukan errepidea gorriz tindatuz. Ezin nezakeen bere berotasuna nabaritu, ezin izan nuen bere kolpea sentitu; nire atzean bizitza batek errepidea margotzen zebilela bakarrik jakin nezakeen.

Amak, begiak malkoz josiak zituela, besoetan hartu zuen, gintuen. Ez dut zehazki gogoratzen zenbat denbora egon ginen horrela. Gogoratzen dudana hurrengo ospitale bateko gela zuri handi bat da. Garbikari usaina zen nagusi, usain mingarria, narritagarria, lurretik arrastaka bizi garen guztiontzat batez ere; berdez jantzitako hainbat medikuk euren usain urduriekin airea nahasten zuten arren.

Han nintzen ni, gurpildun ohe baten behealdean, hainbeste zapatila zuriren artean nire jabearen oin puntak eta bere amaren oinetakoak bakarrik ezagutzen nituela. Medikuek gela hotz batera sartu zuten, gintuzten, ohe eta guzti. Tresna asko ikusi nituen, gehienen kableak orain mutikoaren gorputzera lotzear zedela. Pi, pi, pi, pi ... soinu konstante horrek amorrutik betetzen ninduen. Ez nuen nire jabea ikusten, ez nekien zer gertatzen ari zitzaion. Ez nekien zer gertatzen ari zitzaidan.

- Arin ibiltzen ez bagara, joan egingo zaigu! -entzun nion goitik etortzen zitzaidan mediku baten ahotsari.

- Oxigenoa. Bala saihespean kokatuta dauka. Kontuz atera behar diogu -beste batek.

- Bisturia. Gasak -zion neska baten ahots ederrak.

Mugimendu arinak entzuten nituen ohepetik, tresna ziztrin horrek egiten zuen 'pi' horrez gain. Ordu erdi bat pasa zen, eta gela hartako atmosfera bat-batean aldatu zen.

- Ez du arnasarik hartzen! Joan egingo zaigu! -bota zuen lehenengo mediku berak.

- Oxigeno gehiago. Arin! -neskak.

Pixkanaka-pixkanaka hainbeste gorrotatzen nuen makinaren zaratak erritmoa aldatu zuen. Orain are gorrotagarriagoa zen. Ez zen hain

konstantea, ez zen erritmikoa. Ez zen bihotz baten taupadek egiten duten soinua, jada. Eta hasieran ‘pi, pi, pi, pi’ zena ‘pi’ luzea bihurtu zen.

Ez nuen nire jabea gehiago ikusi, eta, ikusi egin izan badut, ez naiz oroitzen. Baliteke oroitu nahi ez izatea ere. Nire gainean egon zen ohe zuri metaliko batean joan zitzaion bizitza, bere begien distira, bere ezpainen irria. Eta baita bere amarenak ere, berari bihotzak taupaka segitzen zion arren barrutik hila zelako, bere begiek distira galdu zutelako, bere ezpaineak irria galdu zutelako, bere beso zuriek semea galdu zutelako.

Bigarrena

Beroa. Eguzkiak gogor ekiten zion bere lanari goizeko hamabietan, hareaz eta hautsez estalirik bizi zen paisaia horretan. Pertsonak ohituta zeuden nire kidearen presentziara eta baita nirera ere, nahiz eta eguzki distiratsu honek gure lurraldean iparraldean baino nabarmenagoak egiten gintuen.

Lau egun pasatu ziren herrian altxamendua gertatu zenetik; militarrek euren tropak ekarri eta euren ez zena indarrez hartu zutenetik. Emakumeak denbora-pasa gisa hartu zituzten; haurrak, armak erabiltzen irakatsi eta euren soldadu-esklaboak izan zitezen atxilotu zituzten eta, gizonezkoek eta agureek, berriz, heriotza besterik ez zuten bereganatuko.

Hautsez eta odol tantez zikindutako oin huts batzuei nengoen itsatsia; inoiz ere oinetakorik jantzi ez zituzten eta ni bezain beltzaranak ziren oin huts batzuei josia. Jabeak, nire jabeak, militar batek eman zion pala bat zeukan eskuetan.

Militarrak oihiu egin zion, zigun, ulertzen ez genuen hizkuntza batean mintzatzen zelarik. Tiro bat egin zuen airera, eta jabea urduritu egin zitzaidan; ni ere, urduri egon ez arren, bere dardara imitatzeraz kondenatuz.

- Te he dicho que cabes una fosa. ¿No me oyes? Tu tumba. Coge la puta pala que te he dado y caba tu puta tumba -ahoskatzen zuen, nik eta nire jabeak ulertuko ez genuela jakin bazekien ere.

Jabeak pala indarrez hartu eta zulo bat egiten hasi zen, senak bultzaturik, zer egin ez jakinik. Indarrez hartzen zuen pala, indarrez ateratzen zuen lurra bere lekutik, bere herriarena zen lurra, bere arbasoena, bere landare eta abereek behar zuten lurra. Malko bat irristatu zitzaion, zitzaigun, masailetik bera. Hura bai malko gardena, minez betea, egiaz betea ...

- ¿Hasta cuándo esperas estar cavando? Si no lo haces tú, mandaré a tus hijos que lo hagan -oihukatu zuen militar gizen eta izerditu hark.

Indar gehiagoz hartu zuen nire jabeak “pala puta” hura, bere, gure, hiltokia izango zena eraikiz. Nik ez nuen begiratu eta sufritu besterik egin behar. Jabeak bultzatzen ninduen, berari lotuta egotearen prezioa ordaindu behar izango nuen.

Bere sufrimendua handiagotzen ikusten nuen, lurra bere lekutik ateratzen zuen heinean. Malkoak gardenagoak bihurtzen ziren, eta bere ezpaineak ezin zuten behinola irribarre izandakoa erakutsi. Begiak gorritzen joan zitzaizkion eta altxatzen zen hautsak ez zuen laguntzen.

- Ya está bien. Date la vuelta -oihukatu zuen zerri izerditsuak.

Jabeak ez zion ulertu. Ez zekien, ez genekien, zer egin, eta pala lurrera eror zedin laga zuen. Militarri begietara begiratu zionean, genionean, honek eguzkitako betaurreko batzuk jantzi zituen.

‘Hori bai ausardia, hori. Bejondeiola!’ pentsatu nuen nik, jabeak berdina pentsatzen zuela jakinik. Nire jabearen begi minduak ezin ikusi eta bereak estali zituen, erailtzear zegoen gizonaren sufrimenduaren kulpa jasan ezinik.

Halako batean, zerri gizenaren atzetik, nire jabearen seme txikia agertu zen. Begietan benda moduko bat ipinita zuela, militarrek zertxobait esan zion belarrira. Nire jabeak buelta eman zuen birritan pentsatu barik.

Eguzkiak atzetik jotzen zion eta bere aurpegi ikaratua ikusten nuen, beti ere lurraren gainean etzanda nengoela.

Dardara batean hasi zitzaizkion hankak, eta bere semearen izena ahoskatzeraz joan zenerako, azken honek eskuetan zeraman eskopeta kutre



hori erabili zuen. Militarrek barre egin eta semeari benda kendu zion, bere aitaren lepotik gorria zen odolaren jarioa ikus zezan.

Semea arrapaladan etorri zitzaion aitari, zitzaigun, eta barkamena eskatu zion zekizkien era guztietan. Aitak irribarre egin zion, eta bere buru tindatu berria hautsaz eta areaz estalita zegoen lurrera erortzen utzi zuen.

Semearen malkoek aitaren ilea laztantzen zuten, gehiago hasiko ez zen ile beltz kizkurra. Eta nik, zer esanik ez neukala nirea eta eurena zen bizitza horretan, mutu eta itsu gelditu nintzen, militarrek paladaka jabea eta biok geunden fosa hori betetzen zuen abiadura berean, desagerrarazten gintuen artean, bere barre maltzurra aireari oparitzen ziola.

Hirugarrena

- Haurdun nago -bota zion azkenean ile gorri leuna eta azal zuria zuen nire jabe ederrak bere mutil lagunari-. Ez nekien zelan esan behar nizun, baina hori da egia. Haurdun nago eta umea eduki dezagun nahi dut.

- Zera... Ni ez nago prest. Ez nago prest horretarako. Lan asko eskatzen du haur batek, eta badakizu. Orain ez da momentua -haserre aurpegiaz erantzun zion besteak.

- Eta zer egin behar dugu orduan? Ez dut hilko, ez horixe! Gure umea da, gure erantzukizuna! -nire jabeari, bere oin ederrei lotuta nengoela, masail zuritik malkoak erortzen zitzaizkiola ikusten nuela.

- Ez dakit, ez dakit. Orain ezin dezaket erabaki argirik hartu. Trago baten beharra daukat. Banoa. Ez nazazu itxaron, berandu bueltatuko naiz etxera -esan zuen bere jertse urdina ohe gainetik hartu eta euren, gure, logelako atea ixten zuen bitartean.

Ezin nezakeen nire jabea lasaitu. Negar batean aritu zen ohe gainean ordu erdiz, gutxienez. Bere tristura senti nezakeen, baina ezin ezer egin hori gaindi zezan.

Gogorra, jabeari josita egon, jaio zenetik alegia, eta horrelako

momentu zailetan lagundu ezin, argiak bere gorputza gelako hormaren kontra proiektatzean agertzen bainintzen, berak egiten zituen mugimenduak konpartitzeko sortua. Bai, hori zen nire funtzio bakarra mundu triste eta gris honetan.

Neska ohera sartu zen, eguzkia, bere eguneroko guda ostean, zeruan odol arrastoa margotu ostean, infinituan barrena ezkutatu zenean. Danbateko batez ireki zuen bere kideak logelako atea, gela iluntasunean egon zenean. Whisky kiratsa zuela, jertse urdina lurrera bota eta bortizkeriaz neskarengana joan zen.

Eskumuturretik gogor oratuz, gorantz tiratu zuen, gintuen, nire jabearen kexei jaramonik egin gabe. Ohetik altxarazi zuen, gintuen, eta belarrondoko bat eman zion, zigun, masailean bere indar osoz. Lurrera erori zen neska, eta ni berarekin.

- Banoa, betirako -saiatu zen ahoskatzen edanda zihoan mutilak.

Eta abiadura beraz, lurretik bere jertse urdina hartu eta han utzi gintuen, jabea eta biok, lurlean botata zer egin jakin ezinik. Neska, nire harridurarako, ez zen negarrez hasi. Haserre zegoen, haserre bizian, eta ni ere bai, zelan ez.

- Bihar beste egun bat izango da, laztana -esan zuen, bere sabela laztantzen zuen bitartean-. Egund berri bat. Egund berria zuretzako, niretzako. Egund berri bat bizitza berri bat hasteko -eta irribarre batekin, logelako atea itxi eta ohera sartu zen berriro, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Indarra. Nahia. Bizitzeko gogo. Bai, hori guztia ikusi nuen nire jabearen aurpegian altxatu zenean, ginenean. Zeraman elastiko gorria bere gorputzaren kontra estutu eta bere itzala hormaren kontra ikusten jarri zen.

- Ondo egin duzu lo, txiki? -esan zuen, goxoa bezain ederra zen ahots batez.

Bere begiak nituen orain aurrean. Ni begiratzen ninduen. Berari lotuta hainbeste denbora egin ostean, nire presentziaz ohituta, ni nintzen orain bere izatearen parte. Euren izatearen parte. Eta horrek asko poztu ninduen.



Irribarre egiten saiatu nintzen. Ez nuen lortu. Orduan, berak egin zuen irribarre, bere sabela emeki laztanduz; eta nik, berarekin, ere bai.

Etxeko teilatuaren gainean nago, gaude, orain. Orain ez nau eguzkiak sortzen, ilargiaren argiak baizik. Sabel bat izan zen gazte bati lotuta nago orain, jantzita daramatzan ‘Vans’ markako zapatila zuri batzuei josia. Begirada lasaia du. Beste teilatuak ikuskatzen dabil, berearen teilen artean eserita dagoela.

Bakeroen patrikatik atzotik eginda zeukan porroa atera du. Aurikular bat erori zaio, zaigu, belarritik, eta *Steve Miller Banden* ‘The Jockey’ kanta entzuten da orain gauaren isiltasuna urratzen.

Haize hotz bolada bat pasatu zaio, zaigu, ondotik, eta, nire jabe berriak, gorputzaren kontra estutu du bere larruzko txupa. Mingaina atera eta ezpainak busti ditu. Pixkanaka ingeles txar batean hasi da entzuten ari ginen kanta abesten, eta nik irribarre egiteko gogoia eduki dut.

Begiak itxi eta eskua bakeroetako patrikan sartu du berriro, marihuana orri bat Jamaikako bandera baten gainean margotuta duen txiskeroa topatu nahian.

Porroa sudur azpitik pasatu eta arnastu egin du. Bai, gustukoa du, dugu, bere usaina, belarraren usaia. Indar gutxiko su batekin piztu du,

eta ezpainetara hurbildu du. Kalada bat, bi, hiru..., keaz inguratu gara. Goxoa da bere usaina, erakargarria.

Abestiak aurrera jarraitzen du. Ilargi beteak, gauean duen argiaren indar osoaz eragiten du bere gorputzaren gainean, niri mundu honetan leku bat oparituz. Lasaitasun giroa dago teilatuen gainean.

Hemendik, goitik, dena ikus dezakegu; denak ikus ditzakegu. Eta gu, ordea, ilargiak eta izarrek soilik ikus gaitzakete. Munduaren gailurrean gauden sentsazio hori zabaldu da gure artean, behingoz lurretik altxatzeko eduki dudak aukera honetan, arrastaka ez ibiltzeko eta gauaren edertasunaz gozatzeko aukera honetan.

Mihi pozoitsuek itzalak gauean hil egiten direla diote; eguzkiak, argiak egiten dituela itzal. Baina iluntasunean argirik egon daiteke, puntu ziztrin bat soilik bada ere, motibazioak bultzatuta egiten dugulako aurrera, motibazioa arazoan artean txikia denean batez ere. Horri heltzen diogu, horri ekiten diogu.

Puntu galdua, argi galdua, nortasunik gabeko argia, nortasunik gabeko itzala. Bat, bi, hiru... eta iluntasuna argi bihurtzen da berriro, eta itzala indar gehiagoz proiektatzen da.

Itzalek, gorputz motibatu horiei lotuta bizi direla, bizitza lurrean etzanda daudela bizi behar dute, nahi dituztenak eta nahi ez dituztenak ikusten dituztela, ezer ere egin ezinik, mugimenduak imitatuz; gu, eta ez beste inor, izan behar baikara errealitatea aldatu behar dutenak, eta ez besoak gurutzatuta gelditu. Geure mugimenduak imita ditzaten, geure nortasuna zabal dadin, geure irria ikus dezaten, geure oihuak entzun ditzaten.

Puntu galdua, argi galdua, nortasunik gabeko argia, nortasunik gabeko itzala. Lau, bost, sei... eta iluntasuna argi bihurtzen da berriro, itzala indar gehiagoz proiektatuz. Indarra, zoriona, bizitzeko gogo, arazoei aurre egin eta etorkizuna eraikitze beharra.

Sei, bost, lau, hiru. Hiru itzal. Gorputza eta argia, argia eta gorputza, gerizpea, itzela, itzala.

Ipuinak



Aitor Albistur Pulido

Irabazlea 18 urtetik gorako sailean



Irla

Olatuen joan etorriak kostako haitzak laztantzen ditu maitekiro. Haitzen irmotasunak denbora hingatzen du olatuko. Kostako haizeak oroitzapenak xuxulartzen ditu, irlaren luze zabaleran barreiatu, ezerezaren oroimenean galtzeko.

Sir Harringtonek bere etxolako teilatua konpondu du, adaxkez osatutako egiturak ez baitio palmondo hosto bustien zamari eutsi. Azken egunetako eurite jarraiek egituraren ezegonkortasuna frogatu dute.

Hiru urte daramatza Sir Harringtonek irlan, bakardadearen lagun, oroitzapenen lagun-min, etsipenaren etsai. Itsasontzia hondoratu zenetik, tripulazioko kideen mamuek bisitatzen dute egunero. “Nahi al du beste terik, Sir Harrington?” galdetu ohi dio egunero George zerbitzariak, arratsaldero ohi zuen legez. “Afalostean xakean arituko al gara?” Mr. Jones kapitainak, bezperaro jasandako porroten mendekua hartu asmoz.

Atsegina da joandakoen konpainia, itzulerarik gabeko bidaietan.

Egitura berriaren ikuskapena amaitzean, etxolako sarreran jesarri da Sir Harrington, goizean hartu duen kokoa dastatu asmoz. Ortzemugari begira ari dela, bat-batean, korrika ikusi du Kinyu, tribuko ehiztaririk trebeena, gainontzekoentzat balizko harrapakina dena ehizaki bihurtzekotan.

Mendeak daramatza Kinyuren tribuak irlan, Haifa krokodilo Jainkoaren babespean. Tribuko bikote gazteen lehen alaba oparitan eskaintzen diote Haifari, arbasoen aintzinako erritual sakratuari jarraiki, aita-amen eta ondorengo seme-alaba guztien ongizatea berma dezan. Ederki badaki ehizatzearen duen oreina izango dela bere lehen alabaren

eskaintzaren osteko oturuntzako jaten nagusia. Eta noski, tribuko ehiztari onena izaki, ez dio hutsik egingo, ez Haifari, ez bere emazteari, ez bere arbasoei, ezta bere ondorengo seme-alabei ere.

Lantzaren punta zorroztua oreinaren gorputzean barneratu da, bere babeslekutzat jotzen zuen koban barneratzear dela. Hiltzear den oreina, urrezko txanponez betetako kutxaren distirak itsutu du bere azken begiradan.


Altxor galduen eremua zeritzoten erretiratutako pirata guztiek irlako kobari. Denek zuten bere berri, baina inork ez zuen sekula aurkitu, amets utopiko denekin gertatu ohi den eran. Kondairaren arabera, ehundaka galeoiren abordajeen etekina pilatzen zen bertan, txanponez txanpon, odolez odol. *Begioker* pirata entzutetsua izan omen zen arpilaketa haien buru, inork bere ahotsik sekula entzun ez zuen arren, eta bere zeharkako begiradapean inoiz inor egon ez zen arren.

Baina, bai, *Begiokerrek* badu *altxor galduen eremuaren* berri, bere zikoizkeriak bertatik ateratzea eragozten baitio, hainbeste kostatako ondasuna ez baitu halabeharraren esku utzi nahi. Ederki badaki bere baitan datzan madarikazioa eteteko modu bakarra, bere aurpegia inprimaturik duen urrezko txanpona itsasoratzea dela. Bestela, koba hark irentsiko du betierekotasunean.

Hala igaro zituen bere azken urteak, kobatik irten ezinik, eta hala dirau oraindik ere bere izpirituak.

Bere aurpegia inprimaturik duen txanpona eskuetan duela, otoitzean dabilen misiolariaren ahotsa iritsi da bere belarrietara.

Juan misiolariak *-gure aita zeruetan zarena-* zazpi hilabete daramatza *-santu izan bedi zure izena-* irlako biztanlegoa ebanjelizatu nahian. Irla zapaldu zuen eguna madarikatzen du *-etor bedi zure erreinua-*, ez baita hango bizimodura egokitu *-egin bedi zure nahia-*, hango ohituretara *-zeruan bezala lurrean ere-*, bertakoen hizkuntzara. Janaria gorroto du *-emaiguzu gaur egun hontako ogia-* eta Eliza berekin zorretan dagoenaren uste irmoa du *-barkatu gure zorrak-*, hango bidaldia amaitzean eskaini dioten abade postua ez baitzaio nahikoa sari iruditzen *-guk ere gure zordunei barkatzen diegun ezker-*, jasaten ari dena jasanda. Atsegin duen gauza bakarra *-eta ez*



gu tentaldira eraman- hango emakumeen suhartasuna da, baina falta zaizkion bost hilabeteak ahalik azkarren igarotzea *-baina atera gaitzazu gaitzetik-* besterik ez du buruan, larrutan egiten duen aldiro.

“Amen” esaterako, melodia erakargarri batek liluratu ditu gizonezko guztiak.

Itsas lamien abestiak erakargarritasunaren esentzia direla berresten dute egunero Marik eta Malenek. Bi ahotsetara interpretatzen duten doinua nahitaezko amua da maitasun premia dauden marinelentzat. “Zatoz guregana” soil bat nahikoa da euren erlauntzaren biziraupenerako, gizonezko guztiak hitz ezti haien bila abiatzen baitira erleak bailiran.

Mr. Ripley izan da Mari eta Malenen gaurko biktima. *Thunder boat* izeneko bere azken ontzia uretaratzean, ez zuen patuak zekarkionaren berri. Ontzijabe ingelesak, bere ohituraren aurka, *Thunder boatean* ontziratzea erabaki zuen, munduko transatlantiko modernoena zena sustatu nahian. Atzean utzi zituen Liverpooleko kaia eta *Thunder boata* bataiatu zuen txanpain botila.

Gaur arratsean barneratu da bere belarrietan itsas lamien abestia. Kuberta nagusitik zekusan zeru izartsua bigarren mailara pasa da eta, hipnotizaturik, uretara jauzi egin du *-zatoz guregana-* eta igerian hasi da *-zatoz...-*, zarrastadaz zarrastada *-... guregana-* irlara hurbildu nahian.

Irlara iritsi eta Mari eta Malenekin amodioa egin ostean, “begira, begira itsasora” esan diote. Harriturik, *Thunder boat IIIa* begiztatu du.

Thunder boat IIIa Raymond Ripley III.aren harrokeriaren azken produktua da. Bere aitona eta aita zirenen handikeriaren ondoriozko handikeria. Geneetan darama handikeria, Ripleytarren handikeria, bere emazteak egunero gogorarazten dion moduan.

Gaur da bere aitonaren desagerketaren berrogeita hamargarren urteurrena eta aitarenaren hogeita bosgarrena. Horrexegatik aukeratu du gaurko data, hain zuzen ere, bere arbasoak galdutako uretan nabigatzeko. Berak deuseztatuko du bere sendiarengan datzan sorginkeria. Berak, ez beste inork.

Bere familiaren ondare guztia *Thunder boat IIIa*n gorpuztu da, munduko transatlantiko modernoenean, eta Mr. Jones kapitaina buru

duen goi-mailako eskifaia kontratatu du. Bere patua ez du patuaren menpe utzi nahi.

Aginte-tokira hurbildu eta “zer moduz doa dena, Mr. Jones?” galdetu du. “Bikain, Mr. Ripley” xume bat izan da kapitainaren erantzuna. “Hala jarrai dezala”.

Mr. Jonesek, ordea, burua bezperako xake partidan dauka. Nola liteke hamazazpi mugimendutan galdu izana, pieza zuriekin jokatuta? Ezin du ulertu. “Alfila sakrifikatu ez banu...” diotso bere buruari. “Gaur gauean bai. Gaur gauean irekiera aldatuko dut eta Sir Harrington jokoz kanpo harrapatuko dut. Ziur nago”.

Mr. Jonesek lemari tinko eusten dion arren, zeruko hodei beltzak halabeharraren preludioa dira. Lehen euri tantak etorriko direnen aintzindariak dira. Ekaitz perfektuaren aitzindariak.

Bere pentsamenduetan murgildurik, halabeharrezkoaren norabidea hartu du Mr. Jones kapitainak. Irla bat izan daitekeena bistatu du ortzemugan. Baina, ezinezkoa da koordenatu haietan irlarik egotea.

Olatuen joan etorriak kostako haitzak laztantzen ditu maitekiro. Haitzen irmotasunak denbora higatzen du olatuko. Kostako haizeak oroitzapenak xuxulartzen ditu, irlaren luze zabaleran barreiatuak, ezerezaren oroimenean galtzeko.



Olerkiak



*Arrate Negral
Ugena*

Irabazlea 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Zu zarena

Zu zara nire lorea,
Zu zara nire gau osteko eguzkia,
Zu zara nire bihotza,
Zu zara nire arima

Zu zara nire erreka,
Itsasoratzen dena,
Zu zara nire larrosa,
Usteltzen ez dena

Zu zara nire basoa,
Erreko ez dena,
Zu zara zarena,
Nirekin egongo dena

Olerkiak



Nerea Moreno

Akzesita 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Firin-faran

Firin-faran
firin-faran
haizea dabil teilatuan.

Faran-firin
faran-firin
katua esnatu nahian dabil.

Firin-faran
firin-faran
katua dabil bueltaka.

Faran-firin
faran-firin
haizearekin ezin dut lorik egin.

Firin-faran
firin-faran
katua esnatu da.

Faran-firin
faran-firin
haizeak lotsatuta aldegin.

Olerkiak



Nerea Moreno

Akzesita 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Kalean zehar

Kalean zehar ikusi ditut,
bi oilo ehiztari,
azeria ehizatzen
eskopeta luzeekin.

Kalean zehar ikusi ditut,
bi elefante polizi,
txilibitua jo
eta isunak jarri.

Kalean zehar ikusi ditut,
bi txakur dantzari,
tutua jantzita joaten dira
bueltak ematen arin-arin.

Kalean zehar ikusi ditut,
bi tximino hegalari,
helikopteroan sartu
eta hegan dabilta arin.

Kalean zehar ikusi ditut,
bi txerri tripontzi,
palomitak jan
eta pelikulari adi.

Olerkiak



*Igor Uruburu
Martinez*

Irabazlea 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Ez naiz gai

Begiak zabaldu ditut
Leihotik sartzen den haizeak nire ilea ferekatzen du
Abiadura maite dut
eta abiadurak maite nau
100, 120, 140
Buruak ez du mugarik,
zintzotasunak ezin du nire adrenalina nahia asetu
ustekabea
akats txiki bat, min handi bat bihurtuz
dena oker ikusten dut
dena beltz ikusten dut
burdin eta altzairu zatiak edonon
labanen antzera, niri begira
ohartu naiz, zast!
heriori ate joka ari naiz
nire gorputz odoltsua ikusi dut
itsutu
oihuak jasanezinak dira
gortu naiz
egoeran murgilduta nago
airea sentitu nahi dut biriketan
baina ez naiz gai
burdinezko kartzela honetatik ihes egin nahi dut
baina ez naiz gai
itxaropenean sinetsi nahi dut
baina ez naiz gai
segundoak minutu egiten zaizkit
eta minutuak ordu
segundo bakoitza ziztada bat da
bihotzean barneratzen den ziztada
Ihes egin nahi nuke
baina ez naiz gai

Zerbait egin nahi nuke
baina ez naiz gai
sufritzea baino heriotza dut nahiago
baina horretarako ere ez naiz gai
heriok eskutik eramanez nahi nau
abiadurak maite ninduen
eta abiadura maite nuen
kristal apurtuetatik sartzen den haizeak nire ilea fer-
ekatzen du
begiak itxi ditut

Bertsoak



Maider Urien

Irabazlea 11-12 urteko sailean

San Antonio –Santa Rita ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Urkiola

Urkiola dago ta
mendi tontorrean
eliza ta refugio
egoera onean
goian Anboto eta
Durango behean
hemen egongo zara
leku ederrean

Animaliz beteta
etzanda larrean
beti egoten zara
igande goizean
Bero egiten badu
zuhaitzen artean
kanpai hotsa entzunez
ordu bakoitzean

Astekoko egun guzti
ta festa egunetan
aste santuan eta
baita oporretan
txorizo eta guzti
hango tabernetan
beti egongo gara
larunbat goizetan

Bertsoak



Imanol Bilbao

Akzesita 11-12 urteko sailean

San Antonio –Santa Rita ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Ardoa

Gure ardoa dago
herri guztietan
zelako ona dago
gure tabernetan
kontuz egon mesedez
herriko jaietan
ardoa edan eta
gero barraketan

Ardo asko edanda
denok mozkortuta
lagunekin egonda
kotxean sartuta
hobeto autobusa
edo taxia hartuta
istripuen aurrean
goaz babestuta

Hobeto da ardoa
baina ez mozkortu
edo burutik txarto
ipiniko zaitu
dantzatu eta abestu
ta ondo pasatu
baina edatekotan
nitaz gogoratu

Bertsoak



*Igor Uruburu
Martinez*

Irabazlea 15-16 urteko sailean
Kurutzia Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Nerabezaroa

Inork ere gogoko
ez duen unean
barneratuta nago
"gazte" izenpean
ez ume, ez nagusi
dana erdibidean
askatasun oihu bat
behar dudanean
bizitzak zigortzen nau
ta bete-betean

Ez da oso erraza
nire egoera
derrigortuta nago
berriro hastera
nire bizi krudela
ez da lehengo bera
Burrurari galdetu
nahi nioke zera
bizitzak utzi ahal nau
orain bertan bera?

Txikitako laguna
zure lagun mina
etsai bilakatzen da
sortaraziz mina
Nahiz ta egin ahal dozun
gogor ahalegina
danaren gogoegaz
ta dana ezina
gorroto dot nerabe
bizitza zikiña

Etxera heldu eta
hasi da berbena
bronkek zailduko dute
lehen zaila zena
oihu mordoa dira
nahi dudana azkena
Nahiz ta saiatzen naizen
izaten onena
inorentzako ez da
hau ere zuzena

Azaldu nahi dudana
nik bertso hauetan
kokoteraino nago
ta bene benetan
Denok sufritu dugu
gauza berdinetan
ta dana okertu zait
pare bat urtetan
Okertzen joango al da
erritmo honetan?

Bertsoak



Aitor Albistur Pulido

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2011 urtea



Edanak edan

Doinua: "Itsasoa laino dago"

1.

Goizean zein
arrastian
etengabe
angustian
bizi denak,
modu eztian,
ez du lorik
gau guztian...
Pena zena
arestian
nola hartu
oin azpian?
Pena zena
arestian
maiz ahanztura
da whiskian...

2.

Ez dut ahazten
bere bila
joan eta
berebila
amiltzean,
iskanbila
izan zela
borobila!
Oroitzean
gorpu hila
nahi dut berriz
piz dadila!
Oroitzean
gorpu hila
edan nuen
lehen botila...

3.

Jazoari
indarrean
aurre egin
beharrean,
ibili naiz
ia errean
alkoholaren
sugarrean...
Saminik ez
da hurrean
Johnnie Walker
bakarrean.
Saminik ez
da hurrean
basoaren
hondarrean.

4.

Adimena
beti lauso
duenaren
lehen arazo
eta soila,
berari so,
hori bera
da akaso...
Mozkor bati,
egin kaso,
animoa
nola jaso?
Mozkor bati,
egin kaso,
zerbait txarra
zaio jazo.

5.

Egarri den
baten eran
beti edan
eta edan
aritu ohi
den batengan
zoriona
dabil greban.
Edaleak,
izaeran,
ahaztu nahia
du beregan.
Edaleak,
izaeran,
oroimena
du soberan.

6.

Tragedien
eragina
guztiongan
desberdina
denez, ez da
atsegina
luzaroan
nik egina.
Uzten zaila
zen jakina,
edateko
nuen grina!
Uzten zaila
zen jakina,
onartzea
zen adina...



7.

Ni aritu
naiz, minimo
zazpi urtez,
hain erritmo
whiskizale
asasino
baten menpe
oso irmo.
Orain egin
naiz, animo!,
sufritzaile
legitimo.
Orain egin
naiz, animo!,
alkoholiko
anonimo.

8.

Zu hil eta,
alkohola, gaitz
suntsitzaile
zein asekaiz
honen menpe
egon naiz, nahiz
hala zela
ez jakin maiz...
Orain diot
bisai alaiz,
jada ez nabil
alkohol usaiz!
Orain diot
bisai alaiz,
zuregatik
biziko naiz!